



## ARTZINIEGAKO UDALA

### AKTA

**Saioa: Ohiko osoko bilkura**  
**Eguna: 2017ko urtarrilak 12**  
**Ordua: 19:00 – 21:15**  
**Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela**

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Maria Lorente Burgos  
Joseba Mirena Vivanco Retes  
Alazne Lafragua Ureta  
Arkaitz San Jose Martinez  
Unai Gotxi Kastrexana  
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Jose Luis de Valle Duque, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M<sup>a</sup> Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:00etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

#### **1. 2016ko abenduaren 1ean egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.**

Alkatea: Zer edo zer aipatu nahi duzue?

Joseba Elejalde: bada bai, 7. orrialdean zera irakur daiteke: “Joseba Elejalde: balioetsi egin beharko litzateke, hala gizarte arduradunarekin”, eta zera jartzen du “gizarte honetako”, gizarte arduraduna da, berez. 7. orrialdean, azken lerroaldean.

Bestelako oharririk egin ez denez, 2016ko abenduaren 1ean egindako saioko akta bozkatu da.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.



## **2. INDENORT PV, S.L. sozietateari Goiko Plazako 1 zenbakian dagoen udaletxe zaharra udal gazteen egoitza modura birgaitzeko lana esleitzea.**

Alkatea: esleipen-proposamena irakurriko dut, ez ditut iritzirik irakurriko.

### **“2017ko URTARRILAREN 4AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

*Ikusirik, 2016ko irailaren 13an Alkateak Artziniegako Goiko Plazako 1 zenbakian kokatzen den Udaletxe zaharra udal gazteen egoitza modura birgaitzeko lanak kontratatuzeko premia hauteman zuela irisgarritasuna hobetzeko premiaren ondorioz. Dagokion Obra Proiektua onartuta, kontratazio-espeditente honetara gaineratzen da.*

*Ikusirik, obraren ezaugarriak kontuan hartuta, Teknikariak prozedura egoki modura publikitaterik gabeko prozedura negoziatua irizten duela.*

*Ikusirik, 2016ko irailaren 13an, kontratazioak indarreko aurrekontuko baliabide arrunten gainean suposatzen duen portzentajeari buruzko Kontu-hartze txostena igorri zela.*

*Ikusirik, 2016ko irailaren 13an Idazkaritzak txostena igorri zuela Legeria aplikagarriari eta jarraitzeko prozedurari nahiz kontratua onartu eta esleitzeko eskumena duen organoari buruz.*

*Ikusirik, 2016ko azaroaren 3an Osoko Bilkurak hala erabakita, aipatutako kontratazioarako espeditentea abiaraztea onartu zela proposatutako kontratazioaren premia eta egokitasuna argudiatuz, eta kontratuaren esleipena arautu behar duen Administrazio Klausula Partikularren Plegua onartu zela, publikitaterik gabeko prozedura negoziatuz, era berean hura esleitzeak dakarren gastua onartu zen.*

*Ikusirik, 2016ko azaroaren 17an honako enpresei eskaintzak eskatu zitzaizkiela:*

- VEULSA, S.A
- INDENORT, S.L.
- ARABAOBRA, S.L.
- OLABE&ARANZABAL CONSTRUCCIONES, S.L.

*Ikusirik, 2016ko abenduaren 14an espeditentean agertzen diren eskaintzak ziurtatu zirela.*

*TECCON LAHOZ S.L.*

*VEULSA S.A.*

*ARABAOBRA*

*INDENORT PV S.L.*

*UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS S.L.*

*Ikusirik, 2016ko abenduaren 15ean eskaintzak balioesteko eskumena duen organoa, Kontratazio-mahaia, eratu zela eta hark, negoziatutako alderdiak kontuan hartuz, INDENORT PV, S.L. enpresaren alde egin zuela esleipen-proposamena:*

*“INDENORT PV S.L. sozietateari esleitzea Udaletxe Zaharra gazte egoitza modura birgaitzeko obra 212.153,29 euroko zenbatekoaz (175.333,30 euro gehi BEZari dagozkion 36.819,99 euro)”.*

*Ikusirik, ekonomikoki onuragarriena den eskaintza aurkeztu zuen lizitatzaileri dei egin zitzaioela Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 146.1 eta 151.2 artikuluetan aipatzen diren egiaztagiria aurkezteko, nahiz behin betiko bermea eratu izana eta gainera kontratuaren gauzapenean erabili edo atxikitzeko konpromisoa hartutako bitartekoak erabilgarri dituela egiaztatzeko.*

*Ikusirik, 2016ko abenduaren 30ean INDENORT PV, S.L. hautagaiak behin betiko bermea eratu zuela 8.767,00 eurotan eta eskatutako egiaztagiria aurkeztu zituela.*

*Gaineratzen den dokumentazioa aztertuta, Idazkaritzaren txostena ikusirik, eta azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 151.4. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorrituz, 2017ko urtarrilaren 4an Lurraldeko Informazio Batzordeak egindako proposamena aintzat hartuz, Udaltzako guztien adostasunarekin ERABAKI du honako*

### **AKORDIOA**

**LEHENIK.** *INDENORT PV, S.L. enpresari esleitzea Artziniegako Goiko Plazako 1 zenbakian kokatzen den Udaletxe zaharra udal gazteen egoitza modura birgaitzeko lanen kontratua, irisgarritasuna hobetzeko premiak eraginda, publikitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, Udaltzako hala onartuta 2016ko azaroaren 3an.*



**BIGARRENIK.** *Gastua indarrean den gastuen aurrekontuko 1522.622.001 partidaren kontura egitea.*

**HIRUGARRENIK.** *Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategineko 151.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, esleipenaren berri ematea esleipendun izan ez diren hautagaiei eta haiek emandako behin-behineko bermea itzul dadila onartzea.*

**LAUGARRENIK.** *INDENORT PV, S.L. enpresari, kontratuaren esleipendunari, akordio honen berri ematea eta dei egitea kontratua sina dezan, 2017ko otsailaren 1ean Artziniegako Udalean, eguerdiko hamabietan (12:00).*

**BOSGARRENIK.** *Artziniegako Goiko Plazako 71. partzelan, 8. poligonoan, dagoen eta Artziniegako Udalaren jabetzakoa den Udaletxe zaharra udal gazteen egoitza modura birgaitzeko lanen kontratuaren formalizazioa Kontratzailearen profilean argitaratzea.*

**SEIGARRENIK.** *Behin kontratua formalizatuta, Kontratistak Obraren Segurtasun eta Osasun Plana aurkeztu beharko du, Proiektuko Segurtasun eta Osasun Ikerketarekin bat etorritz. Plan hori Udalak onartu beharko du, alde aurretik Segurtasun eta Osasun arloko Koordinatzailearen txostena jasota, eta ondoren lan-agintaritzari jakinarazita. Izapide hori burututa, zuinketa eta obra hasteko akta jasoko da.*

**ZAZPIGARRENIK.** *Kontratuaren oinarriko datuak Sektore Publikoko Kontratuen Erregistroari helaraztea, azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 333.3. artikuluan xedatutakoaren arabera.*

Alkatea: hori da Udaletxe Zaharra birgaitzeko lanak egiteko enpresa esleitzeko proposamena. Baduzue ezer esateko?

Joseba Vivanco Retes: esleipenaren aldeko botoa emango dugu. Dena den, EH-Bildu alderditik errepikatu nahi genuen, noizbait esan baitugu, eta Osoko Bilkuran azkeneko aldiz egingo dugu, Udaletxe Zaharrean egingo den eraberritzea bezain garrantzitsua dela aurkeztuko den Kudeaketa eta Funtzionamendurako Plana. Oroitarazi nahi dut duela urtebete inguru, 2016ko Aurrekontu Proiektuen gaia eztabaidatzen ari ginela, guk hainbat kontu planteatu genituela, adibidez, herritarren foroak formaliza zitezela. Eta EAJ alderditik, gutxi gorabehera, hori zein helbururekin aurkeztu genuen esan zitzaigun, eta hitzez hitz horrela "izan ere, azken batean, proposamena luzatu eta ondoren gainerakoek egitea oso erraza da". EAJ alderdiari galdera eta berrespena itzuli nahi genizkioke, hau da, Udaletxe Zaharreko lanek 5 edo 6 hilabeteko iraupena izango dute, dagokiona, uda iristerako amaituta egongo dira, dagokionerako. Dagokion unean jarriko da funtzionamenduan, orduan, guk denbora horretan itxaron egingo dugu orain arte egin ez den moduan, hots, gazteen egoitzak nola funtzionatuko duen eta nola kudeatuko den jasotzen duen Plan hori EAJ alderdiak aurkezten duen arte itxarongo dugu. EH-Bilduk etorkizuneko erabiltzaileak, gazteak, bertan izango dituen edozein eztabaida edo bilkuratan parte hartuko du. Eztabaida horretan izango gara. Ez gara Batzorde errepikakorretan funtzionamendu-plan horren inguruan eztabaidatzen hasiko, ia urtebete hori egin gabe egon garenean. Horrenbestez, adierazi nahi dugu EAJ alderdiak funtzionamendua eta kudeaketa jasotzen dituen plana aurkezten digun arte itxarongo dugula, eta ondoren emango ditugu iritzirik edo ekarpenak. 5 edo 6 hilabete ditugu funtzionamenduan sartu aurretik eta denbora horretan itxaron egingo dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: hemen jorratuko den esleipena onartu egingo dut. Kontratazio-mahaian esan nuen moduan, desadostasuna erakutsi nuen, azken batean, ez delako lehiaketa irekia, negoziatua da, eta enpresa bati esleitzen zaio. Ez da negoziatzen, ez harekin ezta lehiatzerarekin etorritako gainerakoekin ere. Eta uste dut hor Udalak zorra sorrarazten ari dela, izan ere, esleipendunarekin prozedura negoziatu bat ezartzen ez badugu, azken batean dirua galduko dugu. Nire ustez, prozedura negoziatu bat irekitzen badugu Udalak negozia dezan egiten da eta, bestela, lehiaketa ireki batera joango gara, neketsuagoa eta konplexuagoa den arren, azken batean araudia betetzen baita. Eta idazkaritzari horri buruz txostena era dezala eskatuko diot, arrazoia dudana ala ez zehazteko.

Alkatea: uste dut horri buruz hitz egin genuela kontratazio-mahaian, agian bestelako baliabideak dituzten Udal handiangoetan prozedura negoziatua ezartzen da. Kasu honetan Plegu zenbait onartu ziren baldintza batzuekin, enpresek baldintza horien arabera aurkeztu zituzten bere eskaintzak, eta azkenik kontratazio-mahaia enpresek aurkeztutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, irizpide horien arabera puntu gehien jaso dituen enpresaren alde egin da esleipena.



Joseba Elejalde Ribacoba: baina ez da merkeena. Ez da enpresa merkeena ekonomikoki, ekonomikoki enpresa merkeenak neurrigabeko behea aurkeztu zuen, eta lasai asko negoziatu zitekeen esleipendun izan den enpresarekin ea portzentaje apalago hori beregain har zezakeen, bazela hori aurkeztu zuen beste enpresa bat. Nik, besterik gabe, prozedura negoziatu bat egiten badugu, Udalak negoziatu dezala errepikatzen dut, azken batean udalerririk honetako herritarrentzat mozkinak eskuratzeko. Azken batean, errazena prozedura ireki bat egin eta enpresa bati bosten truke esleitzea da, baina negoziatu gabe, izan ere, bosten truke emango du; baina negoziatu eta euro bateko mozkinak lortzen badugu, bada ondoren euro bateko mozkin hori Udal honetan beharrezkoa izan daitekeen beste lan batean erabil dezakegu. Eta, besterik gabe, berriro diot, kontratazio-mahaian errepikatu nuen moduan, prozedura negoziatua bada, negoziatu dezagun eta, bestela, egin dezagun lehiaketa irekia, badakit neketsuagoa eta gogaikarriagoa dela, eta narrasagoa dela, denbora gehiago eskatzen duela, baina egin dezagun horrela.

Alkatea: berriro diot.

Joseba Elejalde Ribacoba: ez nahiz honetan gehiago luzatuko, arrazoiak dudak ala ez adieraziko duen txosten juridiko bat eskatu dut. Arrazoiak badut, kontu-hartzaileak emango dit txostena, eta arrazoirik ez badut ere bai. Ez dut denbora gehiago emango honetaz eztabaidan.

Alkatea: berriro diot, Pleguak onartu ziren, enpresek beren eskaintzak aurkeztu zituzten Plegu horien arabera, kontratazio-mahaian bere balioespena egin du eta, azkenik, irizpide horien arabera, kontratazio-mahaian onartutako Plegu horien arabera, puntu gehien jaso dituen enpresari esleitu zaio. Egingo dugu bozketa?

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

### **3. Santa Kolomako bide publikoa ofizioz berreskuratzeko mugaketa onartzea, Artziniegako 4. industrialdeko 738A, 38B, 737A, 26A, 26B eta 49A partzeletatik igarotzen den lekuan.**

#### **“2017ko URTARRILAREN 4AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

«Ikusirik, Santa Kolomako bide publikoa, Artziniegako 4. industrialdeko 738A, 38B, 737A, 26A, 26B eta 49A partzeletatik igarotzen den lekuan, ofizioz berreskuratzeko mugaketa-espeditentea, Memorian agertzen diren arrazoiaren ondorioz hori egitea komeni dela iritzita.

Ikusirik, 2016ko irailaren 26an se Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (108. zenbakia) eta Diario de Noticias de Álava egunkarian mugaketaren lanak argitaratu zirela.

Ikusirik, 2016ko irailaren 26an alboko lursailak jabetasun mugaketa-espeditentearen hasieraren eta beren eskubideak frogatu eta babesteko egokitzat jotzen dituzten dokumentuak aurkezteko aukeraren berri eman zitzaizela.

Ikusirik, mugaketa-eragiketetan Korporazioko praktikoa Alkatea eta alderdi politikoetako ordezkari bana izendatu zirela, 2016ko azaroaren 29an haiei jakinarazi ondoren.

Ikusirik, 2016ko abenduaren 1ean Udaltzat Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak taxututako txostena onartu zuela, aurkeztutako alegazioak kontuan hartuta.



Ikusirik, 2016ko abenduaren 12an mugaketako lurak neurtzeko egintza burutu zela eta horren akta jaso zela, eta interesdunei beren desadostasunak idatziz aurkezteko aukera eman zitzaieela 2016ko abenduaren 16ra arte, idatzi horiek Lur-neurketa Aktan atxikiz.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 22.2.j) artikuluan xedatutakoaren arabera, Lurraldeko Informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzak GUZTIEN ADOSTASUNAREKIN hartu du hurrengo

### AKORDIOA

**LEHENIK.** Onartzea Santa Kolomako bide publikoa, Artziniegako 4. industrialdeko 738A, 38B, 737A, 26A, 26B eta 49A partzeletatik igarotzen den lekuan, ofizioz berreskuratzeko egindako mugaketa, 2016ko abenduaren 12ko Lur-neurketa Aktarekin bat etorritz, baldintza hauekin:

**“LEHENIK.** Bidearen eta deskribatutako partzeletatik igarotzen den espazio publikoaren arteko muga zehazte aldera, mugaketa-proposamenaren puntu adierazgarrien zuinketa burutu zen, luraren gainean finkapen solidorik ez dutenak. Modu berean, proposameneko gainerako zatia mugatzeko elementu kontsolidatuak identifikatu dira.

Hala, 738 partzelaren inguruan jasotze topografikoa burutu da, behin-behineko koordinatuak mugaketa-proposamena egiteko erabilitakoekin doitzeko.

**BIGARRENIK.** Honatx lanak burutzeko erabilitako ekipamenduaren ezaugarriak:

Maiztasun bikoitzeko GNSS ekipamendua. Marka: Topcon Modeloa: Hiper Pro  
Antenen serie-zenbakia: 343-0292; 343-0294. FC-250 Libreta

Metodologia: RTK erako zuinketa, zuzenketak irratiz bidez antena mugikorrera denbora errealean transmitituz Euskadiko GNSS sarearekin VRS soluzioan konektatuta ezarritako oinarri topografiko batean kokatutako hargailu bidez.

**HIRUGARRENIK.** Lurra neurtzeko eragiketen hasiera, Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak Artziniegako Udalaren jabetzakoa den Santa Kolomako nukleoan bide publikoa mugatzeari buruz igorritako Txostenetik eratorritako ondorioei jarraituz, honakoa adieraziz:

**a) Bide publikoa 49 zenbakidun partzela, A azpi-partzela, igarotzen den lekuan.**

Azterketatik eratorzen diren ondorioek agerian uzten dutenez, 49A azpi-partzelaren Hegoaldeko mugaketa justifikaziorik gabe mugitu da, 1957ko gorri-beltzeko airezko argazkiko jatorrizko mugaketari dagokionez, zeinaren azalera bat zetorren erregistro-finkarekin. Adierazitakoaren ondorioz, gaur egun, 3615 zenbakidun erregistro-finkak (O eranskina) “Herriko lur” modura Hegoaldeko mugaketan hartzen duen espazioaren zati batean usurpazio zantzuak daude. Hori dela eta, bidearen alboko aipatutako espazio publikoaren mugaketa Artziniegako 4. industrialdeko 49 zenbakidun partzela, A azpi-partzela, jabetzarekin, egungo Erreferentzia Sistema Ofizialean (ETRS89, UTM H 30 proiektzioa) hurrengo koordinatuekin mugatuta geratzea proposatzen da:

#### ZUINKETAKO PUNTUEN KOORDENATUAK

Puntua	X (m)	Y (m)
A	487181.83	4776221.75
B	487160.05	4776234.10

**b) Bide publikoa 26 zenbakidun partzela, A azpi-partzela, igarotzen den lekuan.**

Azterketatik eratorzen diren ondorioen arabera, ez dago espazio publikoaren usurpazio zantzurik Santa Kolomako bidearen inguruan 26B azpi-partzela igarotzen den lekuan. Egungo Erreferentzia Sistema Ofizialean (ETRS89, UTM H 30 proiektzioa) koordinatuak hauek dira:

#### ZUINKETAKO PUNTUEN KOORDENATUAK

Puntua	X (m)	Y (m)
A	487141.74	4776165.28
B	487143.16	4776167.23
I	487155.02	4776163.54



Gainerako puntuak lurreen kontsolidatutako eraikuntza-elementuen bidez finkaturik daudenez, aurreko zerrendan "B" hizkiarekin identifikatutako puntuaren zuinketa gauzatzen da.

**c) Bide publikoa 737 zenbakidun partzela, A azpi-partzela, igarotzen den lekuan.**

Azterketatik eratorzen diren ondorioek agerian uzten dutenez, katastroan 737A azpi-partzela modura agertzen den lursaila bide publikokoa da erabat, alboko fatxadetako mugarekin mugatuta geratzen delarik. Egungo Erreferentzia Sistema Ofizialean (ETRS89, UTM H 30 proiektzioa) koordenatuak hauek dira:

ZUINKETAKO PUNTUEN KOORDENATUAK

Puntua	X (m)	Y (m)
A	487137.86	4776166.28
B	487133.21	4776159.84
C	487136.09	4776158.08
D	487141.74	4776165.28

Zerrendako puntuak kontsolidatutako eraikuntza-elementuen bidez daude lurreen finkatuta eta horrela identifikatzen dira lur-neurketan zehar.

**d) Bide publikoa 26 zenbakidun partzela, A azpi-partzela, igarotzen den lekuan.**

Katastroan Artziniegako 4. industrialdeko 26A azpi-partzela modura agertzen den jabetzarekin Ekialdera mugatzen den bide publikoaren mugak hormigoitutako espazio osoa hartzea proposatzen da, lursail pribatu modura 737 partzelako etxebizitzara sartzeko eskailerak hartzekoa errespetatuz, zeintzuen koordenatuak hauek baitira Egungo Erreferentzia Sistema Ofizialean (ETRS89, UTM H 30 proiektzioa):

ZUINKETAKO PUNTUEN KOORDENATUAK

Puntua	X (m)	Y (m)
A	487129.83	4776138.70
B	487132.69	4776142.00
C	487127.13	4776146.69
D	487125.81	4776145.41
E	487124.36	4776146.26
F	487124.11	4776145.97
G	487122.99	4776146.74
H	487123.62	4776147.63

Gainerako puntuak lurreen kontsolidatutako eraikuntza-elementuen bidez finkaturik daudenez, aurreko zerrendan "A" hizkiarekin identifikatutako puntuaren zuinketa gauzatzen da.

**e) Bide publikoa 38 zenbakidun partzela, B azpi-partzela, igarotzen den lekuan.**

Azterketatik eratorzen diren ondorioek agerian uzten dutenez, 38B azpi-partzelaren lpar-ekialdeko mugaketa justifikaziorik gabe aldatu da, 1957ko gorri-beltzeko airezko argazkiko jatorrizko mugaketari dagokionez, zeinaren azalera bat zeterren erregistro-finkarekin. Adierazitakoaren ondorioz, gaur egun, 3615 zenbakidun erregistro-finkak (M eranskina) "bide" modura Ekialdeko mugaketa hartzen duen espazioaren zati batean usurpazio zantzuak daude. Horren ondorioz, bidera atxikitako espazio publikoaren mugaketa, Artziniegako 4. industrialdeko 38 zenbakidun partzela, B azpi-partzelaren inguruan igarotzen den lekuan, alanbre-hesiz itxita mugaturik geratzea proposatzen da.

Itxituraren puntu adierazgarri jakin batzuen koordenatuak egungo Erreferentzia Sistema Ofizialean (ETRS89, UTM H 30 proiektzioa) Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak egindako txostenaren X eranskinean barneratzen dira. Lur-neurketan deskribatutako itxitura identifikatzen da. Horrenbestez, ez dagokio koordenatuen zuinketa egitea, izan ere, oker finkaturik dago lurreen.

**f) Bide publikoa 738 zenbakidun partzela, A azpi-partzela, igarotzen den lekuan.**

Azterketatik eratorzen diren ondorioek agerian uzten dutenez, 1236 finkaren erregistroko inskripzioan hainbat ahultasun ageri dira aurrealdeko mugekin lotuta. Gauzak horrela, aurrealdearen definizioa helburu ezberdinetarako erabiltzen den eta etxe baten aurrean kokatuta dagoen espazio modura ulertu behar da -etimologikoki "ataurrean"- Kontuan izanda partzelako gainerako elementuen kasuan deskribatutako azalerek koherentzia geometrikoa erakusten dutela, irizten da Santa Kolomako



bide publikoak, 738 zenbakidun partzela dagoen lekutik igarotzen den puntuan, etxearen Mendebaldeko fatxada izan behar duela mugakide.

Halaber, ohartarazten da bideak, jarraipenean, ataurrea izan behar duela mugakide. Ataurre hori 20 m2ko espazio bat da, etxeko Iparraldeko aurrealdearen paralelora dagoena. Horrenbestez, 738A azpi-partzelaren gainerako eremuan espazio publikoaren usurpazio zantzuak daudela uste da, Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak egindako txostenaren X eranskineko irudikapenean islatzen den moduan.

Txostenean proposatutako definizioa zehazte aldera, eta espazio hori gaur egun sarbiderik gabeko zonalde hesitu baten barruan dagoenez, lur-neurketan zehar jasotze topografiko bidez hartu dira datuak eta hauek dira horien koordenatuak Egungo Erreferentzia Sistema Ofizialean (ETRS89, UTM H 30 proiektzioa):

Puntua	X (m)	Y (m)
A	487102.40	4776112.51
B	487107.23	4776130.88
C	487113.27	4776129.00
D	487116.35	4776136.28

**LAUGARRENIK.** Eragiketa horiek egiten ziren bitartean desadostasun hauek jaso ziren, lur-neurketari eragiten ez dietenak. Horrenbestez, Alkate jaunak mugaketa-eragiketekin jarraitzea erabaki zuen, interesdunei adierazi nahi zuten oro idatziz aurkezteko aukera emanez, idatzi horiek akta honetara atxikitako dokumentu gisa geratuz.

**BOSGARRENIK.** Ez da egon mugaketa bertan behera uztea behartzeko arrazoi justifikaturik.

**SEIGARRENIK.** Lur-neurketa jasotzeko Aktarekin batera dokumentu hauek atxikitzen dira, hartako zati direnak:

1. Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak igorritako txostena, Artziniegako Udalaren jabetzako Santa Kolomako nukleoko bide publikoaren mugaketari buruzkoa. Txosten horretan proposatutako mugaketa, koordenatuen zerrenda eta Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuko teknikarien taldeak sinatutako irudikapen grafikoa (1:200 eta 1:500 eta 1:750 eskalan) jasotzen dira, mugarriak non kokatuko diren adierazteko puntuak eta gorabehera topografikoak adierazita.

2. Marco Antonio Sabater del Val, Alejandro Barcena Aguirre eta angel Aretxabala Torrek aurkeztutako erreklamazioak egiaztatzeko eta adierazteko dokumentuak.”

**BIGARRENIK.** Santa Kolomako bide publikoan, Artziniegako 4. industrialdeko 738A, 38B, 737A, 26A, 26B eta 49A partzeletatik igarotzen den lekuan, mugarriak ipintzea, behin mugaketa onartzeko Erabakia sendoa denean, eta 2016ko abenduaren 12ko Lur-neurketaren Aktarekin bat etorritz.

**HIRUGARRENIK.** Aipatutako mugaketa Amurrioko Jabetza Erregistroan inskribatzea eta baita Udaleko Ondasunen Inbentarioan ere.

**LAUGARRENIK.** Higiezinaren Katastroari mugaketaren berri ematea, katastroko araudiaren arabera.

**BOSGARRENIK.** Mugaketaren espedienteak eragindako pertsonen Erabaki honen berri ematea, jakinaraziz haren aurrean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daitekeela (aldez aurretik, hala badagokio, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean, Udalaren aurrean aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ondoren) Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegian bi hilabeteko epearen barruan, jakinarazpen egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. .».”

Alkatea: Zer edo zer esateko? Bozkatzeari ekingo diogu.





Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).  
Onartuta geratu da.

#### **4. “Barcenako” aparkalekurako hirigintza-lana egiteko kontratazio-espeditentia eta baldintzen plegua onartzea**

Alkatea: Ascen zuk puntu honetan zer bait gaineratu nahi zenuen, kaudimenaren inguruan?

Ascension Hormazabal Meabe: aipatu diet dagoeneko zinegotziei. Kaudimenaren puntuan azken batzordearen ostean eskakizun bat gaineratu da, enpresari azken bost urteetan karabanentzako parkingak barneratzen dituen urbanizazioaren bat burutu izana eskatzeko.

Alkatea: Hau da akordioaren testua:

#### **“2017ko URTARRILAREN 4AN EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

**“- “Barcenako” APARKALEKURAKO URBANIZAZIO-IRIZPENA kontratazio-espeditentia eta plegua onartzea”.**

*Ikusirik, 2015eko uztailaren 24ko ezohiko bilkuran Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuela “Barcenako” aparkalekurako urbanizazio-obra egikaritzeko diru-laguntzaren eskaera.*

*KONTUAN HARTUZ, 2016-2017 Foru Planaren programaren barruan, Diputatuen Kontseiluak, 56/2016 zenbakidun akordio bidez, 72.660,54 euroko diru-laguntza eman zuela obra egikaritzeko.*

*KONTUAN HARTUZ, irailaren 30ean (2231 sarrera) foru plan Sailak obra-proiektua onartu duela eta diru-laguntza 80.192,74 eurora areagotzen duela jakinarazi zuela. Halaber, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 5eko 48/2016 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, diru-laguntza osagarri bat onartzen dela, 12.617,38 euroko zenbatekoaz.*

*KONTUAN HARTUZ, Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europako Politiketako Zuzendariaren 2016ko azaroaren 25eko ebazpen bidez Artziniegan “Barcenako” aparkalekuaren proiekturako 44.195,78 euroko diru-laguntza onartu zela (27\_2016-00513) 2016ko ekitaldirako eta 103.123,49 eurokoa 2017ko ekitaldirako.*

*IKUSIRIK, Alkatezaren 2016ko apirilaren 21eko 66. zenbakidun dekretu bidez, aipatu obren proiektu teknikoaren idazketa enkargatu zela.*

*IKUSIRIK, Tokiko Gobernu Batzordeak Proiektu Tekniko hori onartu zuela 2016ko ekainaren 14an burututako saioan, 243.833,11 euroko aurrekontuarekin.*

*Kontratazioaren ezaugarriak aintzat hartuta, prozedura egokiena publizitaterik gabeko prozedura negoziatua dela erabaki da.*

*Dokumentuak aztertuta, Idazkaritzaren Txostena ikusita, eta azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren bigarren xedapen gehigarriak eta 110. artikulua ezarritakoa betez,*

**GEHIENGOZ ADOSTEN DA**





**LEHENIK.** “Barcenan aparkalekurako Urbanizazioa egiteko” Kontratazio-espeditentza onartzea, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez.

**BIGARRENIK.** Udal honek aipatu kontratazioa gauzatzeko behar duen gastua onartzea, hau da, 201.514,97 euro eta 42.318,14 euro BEZari dagokionez (243.833,11 €). Gastu hori 2016 ekitaldiko Udal honen Udal Aurrekontuaren gastuen egoera-orriko 459.601.001 aplikazioen kargura izango da.

**HIRUGARRENIK.** “Barcenan aparkalekurako Urbanizazioa egiteko” kontratua arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Pleguak onartzea.

**LAUGARRENIK.** Ondorengo enpresei eskaintzak eskatzea:

- 1.-ONAINDIA**
- 2.-BALGORZA**
- 3.-GAIMAZ, S.A.**
- 4.-CONSTRUCCIONES ARANA**
- 5.-CAMPEZO”**

Joseba Elejalde Ribacoba: Bost enpresa horietako bakar batek ere ez badu betetzen baldintzen pleguan ezarri dugun betekizuna, ongi iruditzen zait urbanizazio mota hori egin izana adierazteko ñabardura egitea, azken finean esperientzia bat da eta ziurrenera beste edozeinek baino hobeto egingo du, baina, jakina, bost enpresari ari gatzaizkie eskaintzak eskatzen eta ez dakigu, nik bederen ez, bost horietako batek esperientzia hori duen ala ez, edo esperientzia frogatua izan dezakeen bat baino gehiago dagoen, behinik behin, hainbat izateko...

Alkatea: ea bada, kaudimenari dagokion betekizun hori teknikariek aholkatuta barneratu da. Horrela izango dela ziurtatzeko berme modura.

Joseba Vivanco Retes: guk abstentzioa emango dugu, ez aparkalekua areagotzearen aurka gaudelako, baizik eta, aurreko Informazio Batzordean esan genuen moduan, ez gaudelako ados barneratzen den irizpidearekin, bitxia bada ere Arabako Foru Aldundiaren gomendioz barneratua, obrak gauzatzeko denbora murriztea puntuatzekoa. Ez nago ziur, uste dut obraren denbora murrizten zen aste bakoitzeko enpresari x puntu ematen zitzaizkiola. Gure ustez, irizpide hori aplikatzea zeharkako kaltea izan daiteke enpresa horietako langileentzat. Azken finean, enpresak denbora murrizten du epe horiekin puntu gehiago jasoko dituelako, gero ez dakigu, oro har lanak ez dira adierazitako epeetan amaitzen, baina azkenik horrek ondorio modura ekar dezake enpresa horrek kontratatutako langileek edo enpresa horretako langileek asteburuetan edo ez dakit zein egunetan lan egin behar izatea, edo zortzi orduz aritu beharrean ez dakit zenbat orduz aritzea. Guztiok dakigu hori gertatu ohi dela eta hori gerta daitekeela, horregatik deigarria iruditzen zaigu Arabako Foru Aldundiak berak proposatzea hori, eta horregatik irizpide hori baztertu eta beste batekin ordeztzeko eskatu genuen. Azkenean, mantendu egiten da, horrenbestez guk abstentzioa emango dugu. Adierazi nahiko nuke klausula edo irizpideak barneratzeari dagokionez Batzar Nagusietan, 2014ko otsailean, zenbait klausula sozial onartu zirela foru sektore publikoko lanen kontratuekin lotuta, esate baterako, kontratistak lan, gizarte segurantzaren, laneko segurtasun eta osasun nahiz berdintasun arloko betebeharrak betetzeari buruzko klausulak. Hasiera batean Klausula horiek, ez dakit Batzar Nagusietan onartzeko emandako aginduak horretara behartzen duen Foru Gobernua, baina egiten diren lan-kontratuaren klausula sozialak aintzat hartzea gomendatzen da, baina bitxia da esatea “kontratazio publikoa ez da eksklusiboki prestazio, lan edo zerbitzuak eskuratzeko bitarteko bat, Administrazioarentzat ekonomikoki onuragarrienak diren baldintzetan, izan ere, botere publikoen zerbitzura dagoen eskumen edo tresna juridiko bat ere bada, bere helburu eta politika sozialak modu eraginkorrean betetze aldera”. Hori Batzar Nagusietan bertan onartu da, eta orain Foru Aldundia iritsi eta irizpide bat aplikatzeko gomendio bat egiten digu, guztiok dakigunez, langileen aurkakoa izan daitekeena argiro, izan ere, horrek denbora murriztea dakar, hau da, guztiok ulertzen dugu, eta ados ez gaudenez guk abstentzioa emango dugu, eta



Artziniegako Udalak etorkizunean esleituko dituen lanei begira, sozialagoak izan daitezkeen beste irizpide batzuk berrikusi eta barneratuko direlakoan gaude.

Alkatea: ohararazpena ongi dagoela deritzot, baina egia da irizpide hori lehendabizi Foru Aldundiak ipintzen duela igorritako pleguen eredian epea murriztea kontuan hartzeko elementutzat proposatzen duenean, eta gero proiektua idatzi duen arkitektoak berak irizten du zentzuzkoa dela lana epe laburrago batean egin ahal izatea obra-proiektuan agertzen denarekin alderatuta. Zuk aipatzen duzun egoera gerta daiteke, baina litekeena da ere ez gertatzea. Baldin eta epea murriztea langileak asteburuetan edo denbora gehiagoz lanean eduki beharrean, jende gehiago kontratatuz lortzen badute. Horiek ere kontuan izateko kontuak dira. Berritot, Foru Aldundiak eredian barneratu zuen irizpide bat da eta proiektua idatzi duen arkitektoak berak erabaki du baietz, 10 hilabeteko epea zegoela eta epe hori nahikoa bermatzailea zela, baina 10 hilabete baino gutxiagoan egin daitezkeen lana dela.

Joseba Vivanco Retes: nik hori baino ez dut errepikatu nahi, deigarria iruditzen zaidala Foru Aldundiak hori bultzatzea. Azken batean, joan den egunean aipatu genuen moduan, aurrekontuan dagoeneko doitu dauden lan batzuk ateratzen ditugu, ez Udalak, baizik eta administrazioek orokorrean. Horrez gain, berez jadanik beheak aurkezten dituzten enpresak ditugu aurrez aurre..., gaur egunkarian irakurri dudanez, Sopelako Udalak futbol-zelaiaren erreforma agindu zuen, eta prezioa azkenik % 30eko behe batekin atera da, hots, aurreikusitako prezioa baino % 30 gutxiagoan ateratzen zen obra. Horri gaineratzen badizkiogu lanak lehenbailehen amaitu behar direla adierazten duten klausula batzuk, eta gero, iragan egunean esan genuen moduan, Josebak lehen prozedura negoziatuari buruz hitz egin du... eta gainera behe handiago bat negoziatzen bada, bada ez dakit, azkenik katez lotuta lan egiten amaituko dute. Azken finean, Administrazioak estutu, estutu eta estutu baino ez dugu egiten, eta normala da gertatzen dena gertatzea, eta dituen ondorioak izatea. Beraz, argi gera dadila gai honi buruz dugun iritzia, eta etorkizuneko esleipenetan halako irizpideak kontuan hartuko direlakoan gaude. Batzar Nagusiak egindako proposamenean jasotzen zen kontu bat baino ez dut aipatuko, hots, enpresak horrek langile gehiago kontratatu behar bazituen, esate baterako, emakumeren bat kontratatzeke konpromisoari buruzkoa. Hor barneratzen diren klausulak dira, begiratu eta barneratu egin daitezke. Nire ustez, kontua horiek aztertu eta pixkanaka kontuan hartzea da.

Joseba Elejalde Ribacoba: Joseba aipatzen ari denari buruz ez diot izan dezakeen arrazoirik kenduko. Argi dago badirela hori horrela izatea ekidin dezaketen zenbait parametro, esate baterako, enpresak lanak nola gauzatuko diren adierazteko lan-egutegi bat ezartzearena. Baina bada arreta ematen didan kontu bat Joseba, hots, zuen alderdiak Udaletxe zaharraren lana Indenort enpresa emakidadunari esleitu izana onartu duela, plegu horietan gauzatze-epea murrizteari 10 puntu ematen zitzaizkionean. Oso ongi iruditzen zait orain zuk aurrerantzean begiratu beharreko kontutzat aipatzea, eta niri oso ongi iruditzen zait, baina uste dut Administrazioak enpresei kateak ipintzen dizkiela edo langileei berez egon behar dutena baino ordu gehiago eskatzen dizkiela pentsatu beharrean...

Joseba Vivanco Retes: edo baldintzak edo...

Joseba Elejalde Ribacoba: nire ustez Administrazioak egin behar duena da, behin zuk baldintzen plegua aurkeztu duzunean eta obren egikaritzea abian jarri denean, Administrazioaren zerbitzu teknikoek, kasu honetan gure Udalak, lanaren plangintza eraman behar du egunero edo astero eta epeak betetzen diren ala ez, egutegia betetzen den ala ez eta sartu behar den ordu kopurua gainditzen den ala ez begiratu behar du, zuk azaldu eta irakurri diguzuna ekiditeko.

Joseba Vivanco Retes: deigarria iruditzen zaizun hori argituko dizut, izan ere, iragan eguneko Batzordean aipatu nuen gainera. Udaletxe zaharraren aurreko lanaren esleipenean ere barneratzen da klausula hori, hots, lana amaitzeko epea murriztuz gero puntu gehiago jasotzekoa. Guk hori eztabaidatu zenean aipatu genuen eta galdetu genuen gaiaren inguruan, izan ere, jakina, zuk lana hiru aste gutxiagoan amaitzeko konpromisoa hartzen baduzu, eta gero hilabete luzatzen bazara, zer gertatzen da. Hots, ez dago zigorrik, ez da deus gertatzen? Esleipena irabazi duzu 5 edo 10 puntugatik eta zer eta gero, ez da deus gertatzen? Gerora, gai honekin beste alderdia ere ikusarazi ziguten, hau da, bai, horrez gain, irizpide hori aplikatzen ari



bagara, langileei buruzko beste gai hori sortzen da, beren lan-egoerarekin lotutakoa. Horixe azaldu nuen iragan eguneko Batzordean, oztopo hori gaineratzen genuela eta, horregatik, ez geundela ados. Ez dago aparteko misteriorik.

Alkatea: edozein kasutan, epea murrizten bada, plangintzan justifikatu egin behar da. Lanen programazio bat aurkeztu behar da, ikusteko ea... besterik ez bada, bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); aldeko botoak.

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

## **5. Salazar Dorrea Aramendia S.L. merkataritza-enpresari esleitzeari buruzko elkarren adostasunaren indemnaziorik gabeko erreskatea.**

### **“2017ko URTARRILAREN 4an EGINDAKO SAIOAN LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

**GAIA: Salazar Dorrea ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresari esleitzeari buruzko elkarren adostasunaren indemnaziorik gabeko erreskatea.**

*Ikusirik, 1994ko uztailaren 26an Artziniegako Udalak eta ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresak sinatutako hitzarmena, zeinaren bidez Udalak bere jabetzakoa den “Salazar Dorrearen” erabilera aipatutako merkataritza-enpresari lagatzen dion, ostalaritzako establezimendu bat kudeatzeko.*

*Ikusirik, higiezina erabiltzearen ordainetan Aramendia S.L. sozietateak ustiapenerako egokiak diren kudeatzaileak hautatzeko eta sustatzeko eta jabetzaren aurrean haien ordezkari modura jarduteko konpromisoa hartzen duela.*

*Ikusirik, 2016ko martxoaren 10eko osoko bilkuran erabaki zela ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresari, Artziniegako Salazar dorrearen eraikineko emakidadun modura, Artziniegako Salazar Dorrea alokatzeko Yolanda Molina Garcia andreak eta Francisco Javier Sanchez Iturribarria jaunak, Aialako Dorrea S.L. sozietatearen izenean eta hura ordezkatzuz, sinatutako kontratuko betebeharrak bete daitezela bermatzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak gauza ditzala, kontratua etenez Artziniegako Udalari zor zaizkion errentak ordaindu gabe mantentzen badira.*

*Ikusirik, errentariak errenta kontzeptuan 17.213.13 euro zor zituela, ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresa emakidadunak alokairu-kontratua eten zuela.*

*Ikusirik, 2016ko ekainaren 8ko Alkatetzaren 96/2017 Dekretuz Udalean fidantza kontzeptuan jarritako abala gauzatu zela alokairu-kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko, zenbateko osoa ordainduz (10.473 euro).*

*Ikusirik, 2016ko uztailaren 5eko Alkatetzaren 114/2016 Dekretuz, behin abala gauzatusa, aurretiazko zorrarekin konpentsatu zela eta Aramendiari eskatu zitzaizola abalak estaltzen ez zuen kopurua, 6.994,92 eurokoa, ordain zezala.*



*Ikusirik, ARAMENDIA S.L sozietateak adostasuna agertu zuela emakidaren erreskaterako indemnizaziorako inolako eskubiderik gabe, eta Udalari 6.994,92 euroko zenbatekoa ordaintzeko konpromisoa hartuz, zeina 2016ko abenduaren 13an egin baitzen, Artziniegako Udalari Salazar Dorrearen azken alokairuarekin lotuta ordaintzeke zegoen zenbatekoari zegokiona.*

*Ikusirik, behin giltzak entregatuta eta une honetan inolako jarduerarik ez duen higiezin emakidadunaren eskuetan jarriz, egokitzen jotzen da Salazar Dorrearen kudeaketa Udalak baitaratzea zuzenean, emakida alde aurretik suntsitze aldera.*

*Kontuan hartuz Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatua; nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan eta toki araubideari dagokionez aplikagarri diren gainerako araudietan xedatua.*

*Udalbatza honek, ohiko osoko bilkuran, 2017ko urtarrilaren 12an...*

**ADOSTU DU:**

**Lehenik.-** *Elkarren adostasunarekin eta ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresa emakidadunaren alde indemnizaziorako inolako eskubiderik gabe, Salazar Dorrea erabiltzeko emakida erreskataratzea, ostalaritzako ustiapena kudeatzeko, ondorio guztietarako ebatzita geratzen dena, Artziniegako Udalak baitaratuz udal titulartasuneko higiezin horrek kudeaketa. Artziniegako Udalak zor guztiak kitatutzat ematen ditu eta uko egiten dio ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresaren aurka edozein erreklamazio jartzeari.*

**Bigarrenik.-** *ARAMENDIA S.L. merkataritza-enpresari eta interesa izan dezakeen edonori akordio honen berri ematea, adieraziz haren aurrean, aukera dutela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioekiko Auzien Epaitegien aurrean, hala badagokio, Udal honen aurrean hilabete bateko epean hautazko berraztertze errekurtsoa ezarri aurretik”.*

*Alkatea: proposamen hau azkentzekoa da, Udalaren eta Aramendia S.L. sozietatearen artean 94. urtean adostutako akordio baten erreskatea da. Akordio haren arabera haiek bitartekoak ziren, haiek ziren Artziniegako Dorre Hotelerako balizko erabiltzaileak bilatzeaz arduratzen zirenak. Hitzarmen horren arabera, ez zuten inolako ordainsaririk jasotzen zerbitzu horren truke eta, horrenbestez, urte hauetan guztietan Artziniegako Dorre Hotela ustiatzen aritu diren pertsonak ez dute halakorik jaso, ez zuten kontratua zuzenean Udalarekin, Aramendia sozietatearekin baizik. Ustiatzen aritu den azken pertsonaren ukoarekin kontratu hau etetea proposatzen da, 4 edo 5 urte geratzen zirenean amaitzeko, eta aurrerantzean Udalak har dezala higiezinaren titulartasuna eta baita balizko erabiltzaileak nahiz Hotelaren kudeaketan interesa izan dezaketen balizko pertsona edo enpresak bilatzeko erantzukizuna ere.*

*Arkaitz San Jose Martinez: gaiari dagokionez, sakonean, ez dago esateko gauza handirik, izan ere, luze eztabaidatu dugu eta guztiok uste dugu erabaki egokia dela. Dena den bada kontu bat, agian ni ez naiz egokiena horretarako, izan ere, herriaren izenarekin eta alderdi horiekin galdu egiten naiz, batez ere, historikoekin, baina auzotarrek gai horien inguruan hainbat kezka dituztela adierazi digute, hots, Dorrearen izena, Salazar Dorrea, nondik datorren jakin nahi dute.*

*Alkatea: bada, nik uste dut hori kontratuetatik eratortzen dela. Lehen kontratuan Salazar Dorrea ipintzen du.*

*Arkaitz San Jose Martinez: bai, Ortiz de Molinillo eta Velasco... Pleguak ateratzen ditugunean egiazko izenarekin aterako dugu.*

*Alkatea: Ez dut gogoan Udalaren eta Aramendiaren arteko kontratua, baina uste dut Aramendiaren eta Hotela ustiatu zuen lehen pertsonaren artean adostutako lehen kontratuan Salazar Dorreaz hitz egiten dela.*



Joseba Elejalde Ribacoba: galdera bat, Orain arte Hotelaren ustiapenaren esleipena baitaratzen zuen Aiarako Dorrearen gastu aldakor guztiak (argia, ura, etab.) ordainduta dago osorik? Izan ere, hemen Aramendiak 6.000 euro ordaintzen ditu, enpresak Udalarekin zuen zorrari zegokion zenbatekoa. Baina guztia dago ordainduta, ezta? Ez dugu gero ustekabekorik izango. Espediente bat ixten saiatuko gara eta gero bat-batean ez dezatela esan argiaren lau ordainagiri eta uraren beste lau zor dizkiguzue. Izan ere, debora asko eman dugu horri buruz hitz egiten, nik askotan jarri dut hori mahai gainean, eta gaur berriro ekarri dut hona. Esan ezazue bada, bai, ez, edo ez dakigu. Baina hau ez dadin lehertu hemendik bi hilabetera, edo hirura edo batera, jatetxea berriro irekitzen denean, Dorreari dagokionean, ez dezagun ustekabekorik izan, adibidez, argia eman behar duenari ordain dezala eskatu ez diezaioten, Jainkoak ez beza halakorik nahi, sei ordainagiri, zortzi, lau edo bat.

Alkatea: argia bajaran dago gaur egun.

Joseba Elejalde Ribacoba: gauza bat da bajaran egotea eta beste gauza bat da nik ordainduta izatea. Nik ordain dezaket eta azken bost ordainagiriak ordaintzen ez baditut, zuk argian baja ematen didazu, bikain, baina gero alta ematen duenari eskatu egingo diote ala ez, auskalo, agian Udalari eskatuko diote. Galdetu baino ez dut egiten.

Alkatea: argia bajaran daukagu eta uraren ordainagiriak begiratu dira, horiek Udalarenak dira eta ordainduta daude. Bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

## **6. Diruzainaren izendapena.**

### **“2017ko URTARRILAREN 4an EGINDAKO SAIOAN ANTOLAKETA ETA KONTU BEREZIEI INGURUAN INFORMAZIO-BATZORDEAK EMANDAKO IRIZPENA.**

*Ikusirik, 2015eko azaroaren 16an Idazkaritza eta Kontu-hartzaitzatik Udal honetan diruzaintzako funtzioak betetzeari buruz igorritako txostena, Sektore Publikoko Informazioa berriro erabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2006 Legea aldatzen duen uztailaren 9ko 18/2015 Legeak sartutako legegintzako aldaketen ondorioz eta Estatuaren aurrekontuan aparteko kredituak eta kreditu gehigarriak onartzen dituen eta enplegu publikoa eta ekonomia bultzatzeko beste neurri batzuk hartzen dituen irailaren 11ko 10/2015 Errege Dekretua aintzat hartuz, eta aplikagarri diren aukera ezberdinak aztertuta.*

*Ikusirik, lege hori 2015eko uztailaren 11n indarrean sartuta. 20.000 biztanletik gorako udalerrietan Diruzaintzako zereginak ezin dituztela bete Erakundeko udalkideek, eta gaikuntza nazionala duten funtzionarioek bete behar dituztela.*

*Ikusirik, txostenaren edukitik ondorioztatzen denez, Idazkaritza eta Kontu-Hartzaitzako eginkizunak eta Diruzaintzakoak ezin dituela pertsona berak bete, funtzio horien artean bateraezintasun argia baitago, 2002ko ekaineko KONTSEILUAREN 1605/2002 Erregelamenduan (EK, Euratom), Estatuko Administrazioaren Kontu Hartzaitza Nagusiaren 1998ko irailaren 1eko Ebazpenean nahiz horrekin lotutako sektore publiko eta pribatuari buruzko COSO txostenean jasotzen den moduan.*

*Ikusirik, Udal honetan Diruzaintzako plaza ez dagoela sortua, ezta sailkatua ere, eta indarreko araudiaren arabera, Foru Aldundiari heldu edo adierazi behar zaio esandako lanpostua betetzeko bidea uztailaren 9ko 18/2015 Legean adierazitako aurreikuspenen arabera; zeinak 2016ko abenduaren 31tik aurrera aplikatu beharreko araubidearen arabera hauek izango baitira oro har:*

- Diruzaintza funtzioen elkartzearen bidez, dagokion Autonomia Erkidegoak ezarrita;
- Lankidetzaren bidez, gaikuntza nazionalerako funtzionarioentzat gordetako lanpostua;



- Diputazio Probintzialaren edo baliokideak diren erakundeen edo uniprobintzialak diren Autonomia Erkidegoen bidez, laguntza teknikoko zerbitzuei esker funtzio hauek bere egingo dituztenak;
- Toki administrazioko beste gaikuntza nazionalako funtzionario batek, ohiko lanpostuan eginkizunak metatzearen bidez.
- Aldi baterako Toki-erakundearen jarduketa bermatzeko helburuarekin, aurrez azaldutako irizpideak ezartzea ezinezkoa izango denean; eta horietako bat eratzen den bitartean, langile berak bete ditzake idazkaritza, kontu-hartzaitza eta diruzaintzako funtzioak.
- Zentzu berean, udaletan edo udalerrien taldeetan hirugarren mailako idazkaritza lanpostuak betetzen dituzten bitarteko idazkariek diruzaintza lanak berezko eginkizunak bezala egiten jarraitzeko aukera daukate.

Ikusirik, 18/2015 Legearen zazpigarren xedapen iragankorren ezarritakoaren arabera, 2016ko abenduaren 31ra arteko epealdi iragankorren aurreko lerroaldearekin guztiz bat ez datozen aurreikuspenak ezarri direla eta, ez dela aurreikusten inongo egoeran Udaleko Idazkari eta Kontu-hartzaileak bete beharko dituenik Diruzaintzako eginkizunak; Udalek esandako arauan ezarritakoari helduko diote, hau da:

- Gaikuntza nazionalako funtzionarioa, haiei gordetako lanpostuak betetzeko sistemaren bidez.
- Hori posible ez balitz, Aldundiko karrerako funtzionario bat izenda daiteke, zeina toki administrazioko funtzionarioa izan daitekeen, laguntza teknikoko zerbitzuetara atxikia edo, ez balego, hango beste edozein funtzionario.
- Egiaztatuko balitz, hori ere ez dela posible, toki erakundean lanean ari den karrerako funtzionario bat.
- Eta aurrekoa ere posible ez balitz, bitarteko funtzionario bat izendatu ahalko da, honako hauen arabera: 7/1985 Legearen 92.bis7 artikulua; enplegatu publikoaren oinarriko estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeko 10. artikulua; eta Estatuko gaikuntza duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuko 34. artikulua.

Osoko bilkuran, 2017ko urtarrilaren 4an egindako Antolamendu Informazio-batzordeak proposatuta, GUZTIEN ADOSTASUNAREKIN onartu da hurrengo

#### **AKORDIOA**

**1)** Udal honetako Diruzaina zen zinegotzia, Jose Luis de Valle Duque jauna, kaleratzea, sektore publikoko informazioa berriro erabiltzeari buruzko azaroaren 16ko 37/2007 Legea aldatzen duen uztailaren 9ko 18/2015 Legearen arabera, zeinaren arabera zinegotziek ezin baitituzte bete kontularitza, diruzaintza eta diru-bilketa lanak.

**2)** Arabako Foru Aldundiari eskatzea, irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren xedapen iragankorretatik zazpigarrenaren eta 3. artikulua araberako bertako funtzionarioak izenda ditzala, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan diruzaintza eginkizunak bete ditzaten, eta betiere has daitezela Arabako Lurralde Historikoan beharrezkoak diren lanpostuak sailkatzeko eta sortzeko prozedurak.

**3º)** Arabako Foru Aldundiari eskatzea, salbuespenez eta aldi batetako, udal honetako JESUS MARIA DIEGO OTEO jauna karrerako funtzionario izenda dezala behin-behineko diruzain, harik eta Aldundiak bertako karrerako funtzionarioen artean diruzain bat izendatzen duen arte".

Alkatea: proposamena Diruzaintzaren funtzioan aldaketa egiteari dagokio. Orain arte Joseluk betetzen zuen eginkizun hori. Araudian aldaketa bat dago, diruzaina ezin da zinegotzia izan. Horrenbestez, Jesus izatea proposatzen da.

Joseba Vivanco Retes: funtzionarioak berak erregistroan idatzi bat sarrarazi duenez, ez dakit, hurrengo informazio-batzordean jorratu dadila bederen.

Alkatea: bai, hurrengoan jorratuko dugu.

Joseba Elejalde Ribacoba: Kargu horren iraupen iragankorrik aurreikusten al da? Aldundia Udalarekin harremanetan jarri al da funtzionario hori izendatzeko? Guk Jesus izendatuko dugu modu iragankorren, baina Foru Aldundia da...

Alkatea: Jesus izendatuko dugu modu iragankorren, izan ere, araudian ezartzen denez, gaikuntza nazionala izan behar du. Guk Udal honetan gaikuntza nazional bakarra dugu, hots,



Ascen. Horrenbestez, araudiaren aldaketarekin badirudi gaikuntza nazional horrek udalerritik, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, Idazkaritzan, Kontu-Hartzailertzan eta Diruzaintzan eragiten duela. Guk Jesus daukagu, B taldekoa dena, hau da, administrazio eta finantza kudeaketan maila ertaineko teknikaria, eta horrenbestez, bere lanak kontularitza eta diruzaintzako eginkizunekin du zerikusia. Eta egia esan, nire iritziz, eta uste dut Toki Administrazioaren eremuan lan egiten duten pertsona guztiek partekatzen dutela, ez da zentzuzkoa Idazkaritza, Kontu-hartzailertza eta Diruzaintza pertsona bakarraren eskuetan uztea. Horregatik, pertsona nor izan daitekeen erabakitzeko unea da, izan ere badugu gaikuntza nazionala duen pertsona bat, hots, Ascen; dena den, zentzuzkoa dirudi, sailkapena, ezagutza eta lanaren ezaugarriak kontuan hartuta, Jesusek betetzea Diruzaintzako eginkizunak, eta baita Kontu-hartzailertza eta Diruzaintzako eginkizunak bereiztea ere, orain arte egiten zen moduan, eta 5.000 biztanletik gorako udalerrietan egiten den moduan- 5.000 biztanletik gorako udalerrietan diruzain bat dago. 20.000 biztanle arteko udalerrietan funtzionarioa izan behar da, baina ez du zertan gaikuntza nazionala izan, eta ondoren, 20.000 biztanletik gorakoetan gaikuntza nazionala izan behar du derrigorrez. Haatik, hau behin-behineko izendapena denez, Aldundira igorri behar dugu, Aldundiak behin-behineko izendapena egin dezan. Bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

## **7. Eudel erakundearen akordio-proposamena, gizarte zerbitzuak emateko epealdi iragankorra ezartzekoa eta mozio alternatiboa.**

### **2017ko urtarrilaren 4an egindako saioan batzordeak irizpen hau eman zuen:**

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeko (aurrerantzean GZL) 42. artikuluan aurreikusten denez, Udalaren eskumenekoak dira funtzio hauek:

(...)

3) Gizarte zerbitzuak sortu, antolatu eta kudeatzea 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak betetzea, 22. artikuluko 1. atalean arautzen direnak, telelaguntza zerbitzua salbuetsita.

GZL legeko 2. artikuluan era berean, gizarte zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzen da, 2016k abenduaren 26an atonduko dena.

Araudiko eskakizun horiek berehala aplikatzekoak direnez, Artziniegako Udaleko Udaltzarako adierazten du:

- a) GZL legearen 42. artikuluan, nahiz Legean jasotako bestelako araudi batzuetan, udal eskumena eta zerbitzua modu eraginkorrean ematea bereizi egiten direla.
- b) GZL legearen helburu argi eta zehatza udal eskumenekoak diren gizarte zerbitzuak modu bateratuan eman ahal izatea dela (28.2. eta 29.4. artikulua, GZL).
- c) Helburu hori erabat agerikoa dela Arabako Lurralde Historikoan, izan ere, bertan, Gasteiz salbuetsita, ez dago 20.000 biztanletik gorako udalerririk, ezta Artziniegako udalerrian ere.
- d) Prestazio bateratu hori GZL legearen 36.5. artikuluan ere ohararazten dela, izan ere, bertan zehazten denez, Gizarte Zerbitzuen Mapan Foru eta Tokiko administrazioek zehaztutako mugaketa geografikoak aplikatuko dira. Bere garaian Arabako Lurralde Historikoko Gizarte





Zerbitzuen Mapa onartuta, oraindik zehazteke dago nola eman behar diren gizarte zerbitzu horiek udal-mugapena gainditzen duten lurralde-eremuetan.

- e) Eskalarekin lotutako arrazoi objektiboak eta Lurralde Historikoko Maparekiko egokitzapena kontuan hartuz, Artziniegako Udalak ezin duela beregain hartu gizarte zerbitzu horien prestazioa.
- f) Oraindik ez dela gizarte zerbitzu horiek modu elkartuan, edo beste bide instituzional baten bidez, ematea ahalbidetzeko kudeaketa partekaturik adostu.
- g) Orain arte, Arabako Foru Aldundiak bere kabuz eta akordioen bidez estaltzen duela udal zerbitzuen zati esanguratsu bat, ezarritako aurreikuspenen arabera udal eskumenekoa dena.
- h) GZL legean espresuki aitortzen dela administrazioen arteko kooperazio eta lankidetzarako betebeharra, diseinatzen den gizarte zerbitzuen sistema integratu bati berez dagokiona.
- i) Era berean, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31. 2a) artikuluan aurreikusten denez, Aldundien helburuetako bat "udal eskumenekoa diren zerbitzuak probintzia osoan modu oso eta egokiak eman daitezela ziurtatzea" dela.

Horrenbestez, aipatutako gizarte zerbitzuak bere kabuz edo formula partekatu baten bidez betetzea ezinezkoa denez, Artziniegako udalak ADOSTEN DU:

Ikusirik, Arabako Foru Aldundiak igorritako abenduaren 26ko 904/2016 Akordioa, Lurralde Historikoko Udalei 2016ko abenduaren 26tik aurrera 20.000 biztanle baino gutxiagokoak diren udalerrietan gizarte zerbitzuak Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko Udalerriek kudeatutako moduan behin-behinekoz eta epealdi iragankor batean ematen jarraitzeko proposamena helaraztekoa.

Kontuan izanik, beharrezkotzat jotzen dela, aurrez adierazitako udal eskumenekoa diren zerbitzuak emateko eta lankidetzan lan egiten jarraitzeko helburuarekin, era berean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorro Dekretuan eta Plan Estrategikoan xedatutakoa betetzeko xedez, egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat datorren ikuspegi tekniko eta juridiko nahiz finantza aldetiko kaudimenaren ikuspegi batetik.

Aurrez adierazitakoarekin bat etorritik, 2016ko abenduaren 26an udalari honetako herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea izateko duten eskubide subjektiboa bermatu behar denez eta, horrenbestez, Aldundiak eta udalari honek orain arte emandako eta kudeatutako moduan erabat bermaturik gera dadin.

Eta, araudiko datutik abiatuz, Akordio horretako bigarren puntuan ezartzen denez, Udalari bakoitzean haren eraginkortasuna baldintzaturik dagoela, eskumeneko udal organoaren adostasuna eskuratzearrekin eta, ondorioz, Arabako Foru Aldundiari horren ziurtagiria igortzearekin.

..... ADOSTEN DA

**Lehenik:** Artziniegako Udalaren adostasuna azaltzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 akordioarekin, zeinaren arabera 2016ko abenduaren 26tik aurrera gizarte zerbitzuak 20.000 biztanletik beharago udalerrietan Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko Udalerriek kudeatu izan duten moduan ematen jarraitzeko behin-behinekoz, 24 hilabeteko epealdi iragankor batez. Epe horretan Mapa eratzeko eratutako instituzio arteko Mahaiak gizarte zerbitzu guztiak modu eraginkorrean emateko beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko ditu, bakoitzari dagozkion eskumenen barruan, adierazitako epealdiaren barruan pixkanaka ezarritako joango dena.

**Bigarrenik.** Alkateari akordio honetan xedatzen den oro garatu eta kudeatzeko eskumena ematea.

**Hirugarrenik.** Arabako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea, aipatutako testuaren bigarren xedapenean aurreikusitako ondorioetarako. "

Alkatea: 2016ko abenduaren 26an sartu zen eskubide subjektibo modura gizarte zerbitzuak ematea aitortzeko xedea, Euskadiko gizarte zerbitzuen legean jasotzen direnak, urriaren onartu zen gizarte zerbitzuen zorroan jasotzen direnak, uste dut 2015ekoak; zerbitzu horiek, orain arte, Udalek, horietako zenbait, eta Foru Aldundiek, beste zenbait, eman dituzte. Arabaren kasuan, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, lurralde horietan Udalek erantzukizun



handiagoa baitute zerbitzuak emateari dagokionez, zerbitzu gehienak Foru Aldundiak eman ditu, zuzenean, edo Udalekin adostutako hitzarmenen bidez, zeintzuen arabera jardueraren portzentaje altu bat finantzatzen baita. Artziniegaren kasuan, Eguneko Arretarako Landa Zentroa dugu, % 80 batean Aldundiak zuzenean ematen duen etxez etxeko laguntza-zerbitzua dena, eta are, baita gizarte-langileari ematen zaion laguntza ere, zeina udal eskumenekoa den arren eta Aiala eta Okendorekin partekatzen bada ere, Foru Aldundiak finantzatzen baitu, uste dut, % 80 batean. Horrenbestez, Eudel erakundeak igortzen duen akordio-ereduan proposatzen denak, 24 hilabeteko luzapenak, berekin dakar 24 hilabete horietan zehar Araban ematen diren zerbitzuak orain arte ematen ziren moduan eman daitezela. Eta 24 hilabete hauetan modu juridikoak erabaki daitezela, hots, zerbitzuak emateko orain arteko modua gizarte zerbitzuen legea indarrean sartzearen ondorioz sortzen den egoera berrira egokitzea juridikoki. Horixe da, laburbilduz, akordioaren helburua.

Joseba Vivanco Retes: EUDEL erakundetik iristen den proposamen horri emango diogun boto negatiboa azaltze aldera, izan ere, mozio alternatibo bat aurkeztu dugu, honen ostean bozkatuko dena; horrenbestez, kontrako botoa zergatik emango dugun azaltze aldera. Esan duzun moduan, joan den abenduaren 26an Gizarte Zerbitzuen Legea sartu zen indarrean. Lege horren ondorioz, gizarte zerbitzuak dagoeneko eskubide subjektibo eta unibertsala dira, eta baldintzak betetzen dituen edozein pertsona auzitegira joan daiteke dagokion zerbitzua ematen ez bazaio. Udan, EH Bildu alderdiak, eskagarri diren gutxieneko baliabideen inguruan desadostasuna izatearen ondorioz, emandako kontrako botoarekin, Arabako gizarte zerbitzuen mapa onartutzat eman zen. Hori uztailaren 22an izan zen eta bilkura hartan bertan Gizarte Zerbitzuetako foru diputatuak berak, Beatriz Artolazabalek, ziurtatu zuen, Gizarte Zerbitzuen Legea indarrean berme osoz sartze aldera, kudeaketa-eredu bat proposatuko zuela sei hilabeteko epean. Joan den abenduaren 26an Legea indarrean sartu zelarik, Aldundiak Dekretu bat onartu zuen, zeinaren arabera bi urteko epealdi iragankor bat ezartzen den eskumenak berrantolatzeko; zerbitzuak inolako aldaketarik gabe ematen jarraituko direla aipatzen da, erabiltzaileek ez dutela aldaketarik nabarituko eta, funtsean, Udalak zerbitzu horiek ezin ditugulako eman egiten dela. EH Bildu alderditik adierazi nahi dugu ez dugula bi urteko luzapenaren erabakia partekatzen. Aldebakarreko erabaki bat da, Arabako Foru Aldundiak hartua. Aldundia da irtenbide iragankor hori inposatzen duena eta onartzea beste erremediorik ez dugu. Gainera, zalantza sorrarazten du, izan ere, ez dakigu zer-nolako ondorioak izan ditzakeen. Arabako Foru Aldundiak hona ekartzen zaigun udal akordio-eredua onartu du salbuespenez, eta Udalei sinatzeko eskatzen zaie, baina segurtasun juridiko handiagoa lortzeko eta bi urteko epealdi hori agortuko ez dela adierazten duen konpromiso argia erdieste aldera, EH Bildu alderditik hainbat ekarpen egin ditugu. Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu egoera hau joan den uztailaren instituzio arteko mahaia hartutako akordioa Arabako Foru Aldundiak bete ez izanaren ondorioz sortzen dela; bigarrenik, azpimarratu nahi dugu udal finantzaketa, FOFEL bidez, ez dela areagotu nahiz eta Udalek eskumen berriak baitaratu dituzten, gizarte zerbitzuaren hau kasu; eta, azkenik, EH Bilduk proposatzen duena da Aldundiak eragindako babesgabetasun egoera honen aurrean blinda gaitzela juridikoki eta, horretarako, udal akordioan argi geratzea nahi genuke Udalak ez dituela beregain hartuko bi urteko epealdi iragankor horretan zehar sortutako egoeratik eratorritako erantzukizunen ondorioak. EH Bildu alderditik ezin dugu onartu etena irtenbidetzat ikusaraztea, dauden baliabideak gutxi dira eta ez datoz bat unibertsaltasunarekin, eta egoera konpondu beharrean, luzapen bat eskatzen da, modu horretan, Udalak babesgabetasun eta segurtasunik eza juridikoko egoera batean utziz. Hori dela eta, EUDEL erakundetik igorritako proposamenaren aurkako botoa emango dugu.

Alkatea: Zuk, Joseba Elejaldek, zerbait esan nahi duzu?

Joseba Elejalde Ribacoba: ni bat dator ia erabat Joseba Vivancok esan duenarekin, uste dut hau irtenbide iragankor bat dela, eta 24 hilabeteri iragankor esatea gogor samarra iruditzen zait, 24 hilabeteko neurri iragankor bat da eta uste dut mapa dagoeneko finkatuta egon behar dela eta argitu nahi nuke gizarte zerbitzuak udalerrri bakoitzari dagozkiola. Kontuan hartuz Arabak 51 udalerrri dituela, gehienak txikiak, landa erakoak eta mila biztanletik beherakoak, eta horietan dauden beharrian sozialei erreparatuz, Udalak eskumen hori beregain hartu nahi



badezake ere, ezinezkoa da horiek finantzatzea. Uste dut mapa behar bezala zehazten den arte eta hala Aldundiak nola Udalek finantzatzeko modua aurkezten duten arte, oso zalantzakoa dela, horregatik aurkakoa botoa emango dut eta, batez ere, EAJ alderdiak aldebakarreko eran hartutako irtenbidea izan delako.

Alkatea: gai hori instituzioen arteko mahaian eztabaidatu da eta bertan alderdi guztiek parte hartu dute. Ez gara ari zerbitzuak emateari buruz, baizik eta horiek emateko modu bati buruz, horiek emateko modu juridiko bati buruz, izan ere, bada kontuan hartu beharreko kontu garrantzitsu bat, hau da, hiru lurraldeetako Gizarte Zerbitzuen zorroa zehazten denean Araba da aurretik dagoena, eta Araba da gizarte zerbitzu onenak dituen eta Gizarte zerbitzuen zorrotik gertuen dagoena. EUDEL erakundearen txosten juridikoari erreparatzen badiogu, ia zerbitzu guztiak behar bezala ematen direla ikusiko dugu, hala Foru Aldundiak zuzenean emanda, nola finantzaketa-hitzarmenen bidez emanda, eta arestian esan dudana errepikatzen dut, finantzaketa altu batekin. Hiru dira kanpoan geratzen diren zerbitzuak, ematen ez direnak eta arautzeko hitzarmenik ere ez dituztenak, honatx: adineko pertsonentzako gaueko ostatuak; tutoretzapeko etxebizitzak, eta ez etxebizitza komunitarioak; eta, azkenik, bazterkeria arriskuan diren pertsonentzako ostatuak. Horiexek dira hirurak. Berritortu Arabak ez ditu zerbitzuak gainerako lurraldeek (Bizkaia eta Gipuzkoa) emandako moduan eman. Arabaren kasuan, Foru Aldundia asko ere inplikatuago dago zerbitzuak ematerakoan Bizkaian eta Gipuzkoan baino. Horrenbestez, 24 hilabeteko epe horrek ez du zerbitzuak emateko modua aldatzeko xedea. Herritarrek ez du aldaketarik nabaritutako sisteman, orain arte bezala emango da zerbitzua, eta 24 hilabeteko epe hori gizarte zerbitzuen esparru berrira egokitzeko da, besterik gabe. Gizarte zerbitzuen Legeak esparru bakarra ezartzen du hiru lurraldeetarako, baina lurraldeetan zerbitzuak oso modu ezberdinean kudeatzen dira eta, horrenbestez, duten guztia errealitate berrira egokitu behar dute lurraldeek, ez soilik ematen dituzten zerbitzuei dagokienez, baita horiek emateko moduari dagokionez ere. Ondorioz, 24 hilabeteko epe horretan Foru Aldundiak Hitzarmen partikularrak sinatu beharko ditu Udal guztiekin. Hitzarmen horietan zerbitzuak nola ematen diren islatu beharko da, kontuan hartuz legeak beren mugak gainditzen dituzten eremuetan udalerriei zerbitzuak emateko betebeharra ere ezartzen duela. Beste udalerririk batzuekin adostasunak erdietsi beharko dira zerbitzu jakin batzuk emateko eta alderdi horretan Arabako Foru Aldundiak zeresan handia du, izan ere, lege ezarritako zerbitzu horietako asko Aldundiak ematen dituen eremuetakoak dira. Berritortu, kontua ez da zerbitzuak emateari utziko zaiola, baizik eta 24 hilabete epe horretan horien nola emango diren zehaztea, eta ematen den horren egokitzapen juridikoa egin behar da. Nik EUDEL erakundearen txosten juridikoan esaten dena irakurri baino ez dut egingo." Denboran luzatu behar ez litzatekeen egoera iragankor bat dela aitortzen den arren, plangintzarik ez egiteagatik, aipatutako zorro horretako zerbitzuak emateko batu ez izanagatik, Arabako udalerriei erantzukizunak eratorri ahal zaizkienik ohartarazten ez dela jasotzen da, izan ere, aurretiaz dauden baliabideak berrantolatatu eta arrazionalizatzea da egiten dena, kasuan-kasuan, eska daitekeen prestazioa bermatze aldera". Nik uste dut argi adierazten dela, baina tira, bakoitzak egoki deritzona pentsa dezake.

Ongi baderitzozue, bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Batere ez

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3).

Ez da onartu.



Alkatea: orain EH Bildu taldeak aurkeztu duen eredia bozkatuko dugu, zuen defentsa egin eta ondoren bozketa egingo dugu.

Joseba Vivanco: EH Bilduk egindako proposamena EUDEL erakundeak helarazten duenaren berdina da ia, salbuespen pare batekin. Dena den, bozketari heldu arretik, aurrez Alderdi Popularraren eta EH Bildu alderdien artean egindako Informazio-batzordean planteatzen zenari zegokionez adostasuna zegoen eta hori ere egin berri dugun bozketan islatu da, orain akordioaren lehen puntuan aldaketa bat proposatu nahi dugu eta EUDEL erakundearen proposamena hitzez hitz mantentzearena da, hau da:

**“Lehenik:** Artziniegako Udalaren adostasuna azaltzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 akordioarekin, zeinaren arabera 2016ko abenduaren 26tik aurrera gizarte zerbitzuak 20.000 biztanletik beherako udalerrietan Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoetako Udalerriek kudeatu izan duten moduan ematen jarraitzekoa behin-behinekoz, 24 hilabeteko epealdi iragankor batez. Epe horretan Mapa eratzeko eraturako instituzio arteko Mahaiak gizarte zerbitzu guztiak modu eraginkorren emateko beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko ditu, bakoitzari dagozkion eskumenen barruan, adierazitako epealdiaren barruan pixkanaka ezarri joango dena”.

Eta, gero, gure proposameneko bigarren puntua mantendu nahi dugu, hots:

**“Bigarrenik:** Udal hau ezarritako epealdi iragankorrean Diputatuen Kontseiluak aldebakarreko eran hartutako akordioaren ondotik sortutako egungo egoeratik eratortzen den edozein ondorio edo erantzukizunetik libre geratzen da”

Joseba Vivanco: lehen puntuan EUDEL erakundearen proposamena mantentzen dugu, baina bigarren puntuan zehazten da edozein erantzukizun Aldundiari egozte, bera baita aldebakarreko eran eten hori, bi urteko epealdi iragankor hori, adostu duena. Hau da bozka dadin aurkeztu dugun mozio alternatiboa.

Alkatea: Eta kontuan hartzekoan? Zuek aurkeztutakoa edo EUDEL erakundearena mantentzen duzue?

Joseba Vivanco: ez, gurea mantentzen dugu. Guk aurkeztutako mozioa da, akordioaren lehen puntua aldatuta, EUDEL erakundeak proposatutako moduan uzten duguna. Guk aurkeztutako mozioa da, akordioaren lehen puntua aldatuta.

Joseba Elejalde: “Artziniegako Udalaren adostasuna azaltzea 904/2016 akordioarekin “izango litzateke akordioaren lehen puntua; bigarrena, berriz, izango litzateke “Udal hau edozein ondorio edo erantzukizunetik libre geratzen da”

Joseba Vivanco: besteetan ez dago aldaketarik, EUDEL erakundeak proposatutako berdina dira.

Alkatea: beno, testu bera da ia, kutsu politikoa barneratzen zaiola salbuetsita, nire ustez udal akordioan agertu beharrik ez duen balioespen politiko bat da. Aldundiak egiten edo egiten ez duenari buruz, berriro diot eta aurrez esandakoa errepikatzen dut, Araban beste lurraldeen aurretik egotea ekarri du egin duenak. Oso ongi iruditzen zait klausula hori barneratzea, baina ez du ibilbide juridikorik izango, estalita baikaude, hala dio EUDEL erakundearen txosten juridikoak, estalita gaude. Eta guk, Araban, Aldundia atzetik izatearen bermea dugu, Gizarte Zerbitzu gehienetan atzetik baitago. Horrenbestez, testua ia berdina da, balioespen politikoa egiteko baliatzen da aukera besterik gabe, eta Arabako Foru Aldundiari kritika egiteko, kasu honetan, nire ustez, ez dagokiona, beraz, besterik gabe, bozkatzeari ekingo diogu.

Mozioa osorik transkribatu eta bozketa egiten da:

#### **“EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIO ALTERNATIBOA**

Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeko (aurrerantzean GZL) 42. artikuluan aurreikusten denez, Udalaren eskumenekoak dira funtzio hauek:

(...)

3) Gizarte zerbitzuak sortu, antolatu eta kudeatzea 29. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuak betetzea, 22. artikuluko 1. atalean arautzen direnak, telelaguntza zerbitzua salbuetsita.



GZL legeko 2. artikuluan era berean, gizarte zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzen da, 2016k abenduaren 26an atonduko dena.

Araudiko eskakizun horiek berehala aplikatzekoak direnez, Artziniegako Udaleko Udalbatzak adierazten du:

- a) GZL legearen 42. artikuluan, nahiz Legean jasotako bestelako araudi batzuetan, udal eskumena eta zerbitzua modu eraginkorrean ematea berezi egiten direla.
- b) GZL legearen helburu argi eta zehatza udal eskumenekoak diren gizarte zerbitzuak modu bateratuan eman ahal izatea dela (28.2. eta 29.4. artikulua, GZL).
- c) Helburu hori erabat agerikoa dela Arabako Lurralde Historikoan, izan ere, bertan, Gasteiz salbuetsita, ez dago 20.000 biztanletik gorako udalerririk, ezta Artziniegako udalerrian ere.
- d) Prestazio bateratu hori GZL legearen 36.5. artikuluan ere ohartarazten dela, izan ere, bertan zehazten denez, Gizarte Zerbitzuen Mapan Foru eta Tokiko administrazioek zehaztutako mugaketa geografikoak aplikatuko dira. Bere garaian Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa onartuta, oraindik zehazteke dago nola eman behar diren gizarte zerbitzu horiek udal-mugapena gainditzen duten lurralde-eremuetan, izan ere, Arabako Foru Aldundiak ez du bete gai horri dagokionez Arabako gizarte zerbitzuen instituzioen arteko mahaian hartutako konpromisoa.
- e) 2017. urtean 20 urte betetzen direla Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsa arautzen duen 17/1997 Foru Araua onartu zenetik, eta Udalek egindako aldarrikapen historikoari muzin eginez, Aldundiak ez du eguneratu finantzaketa Udalek arloko lege ezberdinak indarrean sartzearen ondorioz, gaur mintzagai dugun Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legea kasu, hartzen dituzten eskumen berrien arabera.
- f) Arabako Foru Aldundiak ere oraindik ez diola jakinarazi Udal honi Zorroaren Dekretuko Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitako funtsaren (hala 2016. urterako, bere baitan dagoena, nola datozen urteetarako direnak, 2019. urtera arte) helburua ezta hura banatzeko irizpideak ere.
- g) Finantzaketarik ezarekin eta eskalarekin lotutako arrazoi objektiboak eta Lurralde Historikoko Maparekiko egokitzapena kontuan hartuz, Artziniegako Udalak ezin duela beregain hartu gizarte zerbitzu horien prestazioa.
- h) Oraindik ez dela gizarte zerbitzu horiek modu elkartuan, edo beste bide instituzional baten bidez, ematea ahalbidetzeko kudeaketa partekaturik adostu.
- i) Orain arte, Arabako Foru Aldundiak bere kabuz eta akordioen bidez estaltzen duela udal zerbitzuen zati esanguratsu bat, ezarritako aurreikuspenen arabera udal eskumenekoa dena.
- j) GZL legean espresuki aitortzen dela administrazioen arteko kooperazio eta lankidetzarako betebeharra, diseinatzen den gizarte zerbitzuen sistema integratu bati berez dagokiona.
- k) Era berean, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 31. 2a) artikuluan aurreikusten denez, Aldundien helburuetako bat "udal eskumenekoak diren zerbitzuak probintzia osoan modu oso eta egokiak eman daitezela ziurtatzea" dela.

Horrenbestez, Aldundiaren utzikeriak sorrarazitako babesgabetasun-egoera horren aurrean aipatutako gizarte zerbitzuak bere kabuz edo formula partekatu baten bidez betetzea ezinezkoa denez, Artziniegako udalak ADOSTEN DU:

Ikusirik, Arabako Foru Aldundiak igorritako abenduaren 26ko 904/2016 Akordioa, Lurralde Historikoko Udalei 2016ko abenduaren 26tik aurrera 20.000 biztanle baino gutxiagokoak diren udalerrietan gizarte zerbitzuak Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoko Udalerriek kudeatutako moduan behin-behinekoz eta epealdi iragankor batean ematen jarraitzeko proposamena helaraztekoa.

Kontuan izanik, beharrezkotzat jotzen dela, aurrez adierazitako udal eskumenekoak diren zerbitzuak emateko eta lankidetzan lan egiten jarraitzeko helburuarekin, era berean, Gizarte Zerbitzuen Legean, Zorro Dekretuan eta Plan Estrategikoan xedatutakoa betetzeko xedez, egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal



Sistemeekin bat datorren ikuspegi tekniko eta juridiko nahiz finantza aldetiko kaudimenaren ikuspegi batetik.

Aurrez adierazitakoarekin bat etorrituz, 2016ko abenduaren 26an udalari honetako herritarrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea izateko duten eskubide subjektiboa bermatu behar denez eta, horrenbestez, Aldundiak eta udalari honek orain arte emandako eta kudeatutako moduan erabat bermaturik gera dadin.

Eta, araudiko datutik abiatuz, Akordio horretako hirugarren puntuan ezartzen denez, Udalari bakoitzean haren eraginkortasuna baldintzaturik dagoela, eskumeneko udal organoaren adostasuna eskuratzearekin eta, ondorioz, Arabako Foru Aldundiari horren ziurtagiria igortzearekin.

ADOSTEN DA

**Lehenik:** Artziniegako Udalaren adostasuna azaltzea Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 akordioarekin, zeinaren arabera 2016ko abenduaren 26tik aurrera gizarte zerbitzuak 20.000 biztanletik beherako udalerrietan Aldundiak eta Arabako Lurralde Historikoetako Udalerriek kudeatu izan duten moduan ematen jarraitzekoa behin-behinekoz, 24 hilabeteko epealdi iragankor batez. Epe horretan Mapa eratzeko eraturako instituzio arteko Mahaiak gizarte zerbitzu guztiak modu eraginkorrean emateko beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko ditu, bakoitzari dagozkion eskumenen barruan, adierazitako epealdiaren barruan pixkanaka ezarriz joango dena.

**Bigarrenik.** Udal hau ezarritako epealdi iragankorrean Diputatuen Kontseiluak aldebakarreko eran hartutako akordioaren ondotik sortutako egungo egoeratik eratorzen den edozein ondorio edo erantzukizunetik libre geratzen da

**Hirugarrenik.** Alkateari akordio honetan xedatzen den oro garatu eta kudeatzeko eskumena ematea.

**Laugarrenik** Arabako Foru Aldundiari akordio honen berri ematea, aipatutako testuaren bigarren xedapenean aurreikusitako ondorioetarako”.

Kontrako botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik

(3).

Abstentzioa:

Batere ez

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

## **8. Talde politikoaren baterako mozioa, Aiaraldearako saneamendu-planari buruz.**

### **“UDAL TALDEEN BATERAKO MOZIOA AIARALDEARAKO SANEMANEDU-PLAN BAT GARATZEKO BEREHALAKO PREMIARI BURUZ, NERBIOI GOIENA BARNE.**

1.- Artziniegako Udalak URA Agentziari, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen die Artziniega erreka udalerritik igarotzen den gunean arazteko proiektuari dagozkion izapideak arintzeko, ingurumenaren nahiz ekonomiaren ikuspegitik onena den irtenbidea zehaztuz, ahalik eta lasterren proiektua amaitu, lizitazioa egin eta gauza dadin.

2.- Artziniegako Udalaren arabera, Gueñeseko araztegirako lotura da, epe luzera, irtenbide egokiena.

3.- Artziniegako Udalak URA Agentziari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die beren Aurrekontuetan Artziniegan arazketa-sistema bat ezartzeko beharrezkoak diren kolektore eta instalazioen sarea osatzeko beharrezkoak diren lurak desjabetu edota erosteko nahikoa kopurua izan dadila, eta baita Basaurben (Laudio) eta Markixanan (Aiarra) kolektoreen sarea eta Hondakin Uren Araztegia instalatzeko ere.



4.- Artziniegako Udalak URA Agentziari, Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzen die lanak gauzatzeko beharrezkoak diren lurrak eskuratzeko zereginean kolabora dezaten.

5.- Artziniegako Udalak konpromisoa hartzen du udalerria zeharkatuko duten kolektoreak kokatzeko diren lurretako jabedunekin egingo den bitartekaritzan kolaboratzeko, haiek modu errazagoak eskuratzen aldera.

6.- Artziniegako Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio Nerbioi Goienako Saneamendu Sistemaren proiektua eta aurreproiektuak idazten amai dezala lehenbailehen, lizitazioa eta esleipena egin daitezten.

7.- Artziniegako Udalak eskatzen die inplikaturako administrazio guztiei, bakoitzak dituen eskumenen arabera, URA Agentziari, Eusko Jaurlaritzari, Kantauriko Urkidetza ur Kontsorzioari eta eskumena duten gainerako administrazioei modu koordinatuan lan egiten jarrai dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko Plangintza Hidraulikotik Aiaraldearako dagozkion helburu eta neurriak betetze aldera. Eragindako arroak berreskuratzea barneratzen duen plangintza.

8.- Artziniegako Udalak Espainiako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Ingurumen Ministerioari, Arabako Foru Aldundiari, URA Agentziari, Eusko Jaurlaritzari eta Kantauriko Urkidetza Ur Kontsorzioari mozio hau helaraziko die, eta baita Aiaraldea osatzen duten Udalei ere”.

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ñabardura bat egin nahi nuke. Pentsatzen dut egunotan irakurriko zenutela prentsan, hedabide ezberdinetan, Nerbioi Goienako Hondakin Uren Araztegiaren kontua. Niri paradoxiko samarra iruditzen zait agertzen den bakoitzean, beti Audio, Amurrio eta Aiaraldea aipatzea, eta Artziniega sekula ez agertzea. Artziniegako Hondakin Uren Araztegiaren kontua ez dakit zer izango den haientzat, nik Udal honi eskatu nahi diot hedabide guztiei gutun bat igortzeko, hemen eskatzen duguna hedabideetan argitara dadila eskatuz, izan ere, lotsagarria da Artziniega ez agertzea edozein hedabideetan. Nik bost hedabide ezberdin irakurri ditut aste honetan eta Nerbioi Goiena baino ez da aipatzen. Artziniegako Hondakin Uren Araztegiarekin lerro bakar bat ere ez da ageri. Foru Aldundiarekin hitz egin eta inork ez daki ezer, hedabideek ere ez. Horregatik, Udal honi eskatzen diot, gaur onartutakoa hedabide bat edo bitara igor dadila, argitara dadin eta jendeak jakin dezan Artziniegako Hondakin Uren Araztegia oraindik eraiki gabe dagoela eta 2005. urteaz gerotik zain gaudela, besteak bezalaxe.

Alkatea: kontu honekin eta guztiekin. Hedabideetan gehiago ager gaitzela.

Joseba Vivanco Retes: nik Josebak atara duen gaia aipatu nahi nuen, gaurkotatasuneko baita. Gaur Udalean gaia onartuko dugu, zeinaren arabera, nolabait Administrazioei eskatzen diegun egin dezatela egin behar dutena. Adierazpen ez horren positiboa da aste honetan gosaritan URA Agentziako presidentearen adierazpenak irakurri ditugula, aipatuz Audio, Amurrio eta Aiaraldea lan horiek guztiak; ez dakit zergatik ez diren Artziniegako saneamendua, kolektoreak eta Hondakin Uren Araztegia ere barneratzen, zeina 2021. urtera arte ez den irekiko, gutxienez. Hitzak gogora ekarri zitaten, ez du zerikusirik baina, abiadura handiko trenaren kontua, izan ere, Sailburuak esaten zuen “gutxienez 2023. urtera arte ez dugu izango...” Badirudi “gutxienez” hori gauzatu dela. Orduan, kasualitatez, gaur goizean pertsona batek liburu hau eman dit, ez dakit bere izenburua ikusten den. Urteak eta urteak daramatzagu hau bera errekarra botaz. Josebak esan bezala, duela zenbait urtetik eginda egon behar zen gauza bat ari gara eskatzen, aurrekontu batekin eta bere proiektuekin. Administrazio guztiak, baina nagusiki, Administrazio Zentrala da arduraren duena, eta Europar Batasunak hari ipiniko dio isuna epeak ez direlako beteko; guztiak daude inplikaturak eta urteak igaroz joan dira eta ez da ezer mugitzen. Beharbada, azkenik merkeagoa izango da liburu hauek Aiaraldea eskualdeko biztanle guztien artean banatu, eta bakoitza ahal den moduan molda dadila. Ez dakit mozio honek zerbaiteko balioko duen, eskualdeko gainerako Udaletan ere antzeko mozioak ari dira onartzen. Horrenbestez, ikusiko dugu isunekin, aurretiko prestutasunarekin eta epekin zerbait lor daitekeen.





Alkatea: nik dagoeneko bilkura eskatu dut URA agentziako zuzendari berriarekin egoeraren berri izan dezan. Guk daukagun irtenbidea ez da Nerbioi Goienarako dagoen irtenbidearen berdina. Nerbioi Goienan irtenbidea dagoeneko zehaztuta dago, Basaurbe eta Markixana daude, eta gu Gueñeseko kolektorearekin lotura egitearen alde gaude, baina zenbaitetan araztegia ere aipatu izan da. Gu, Udal moduan, mozio honetan Gueñeseko kolektorearekin lotura egitearen alde gaude. Egia da irtenbidea ezberdina dela, eragin gehiago duela, agian Nerbioi Goiena aterako da eragin gehiago baitu, biztanle gehiago direlako, baina guk ere arazo berdina dugu eta berehalako irtenbidea behar dugu.

Joseba Elejalde: ñabardura bat Josebak Audio eta Markixanako Hondakin Uren Araztegiari buruz esandakoaren inguruan, jakina proiektuaren arduraduna Gobernu Zentrala da, eta lurak baitaratzeko ardura Eusko Jaurlaritzak dauka. Horrenbestez, bakoitzak bere eskumena du, eta atzeratu egin dira, bada bai. Zergatik? Haiei galdetu beharko zaie. Nik dakidana da Artziniegako Hondakin Uren Araztegiaren kasuan, Eusko Jaurlaritzarena zela erantzukizuna, eta 2004-2008 bitartean esparru-akordio bat zegoen Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean azpiegitura egin zedin. Eta ez da egin. Beraz, nire asmoa ez da honetan gehiago luzatzea, ezta erruak botatzea ere. Nik uste dut gaur hiru taldeok onartu duguna dela aurrera atera behar duguna eta behin betikoz gauza daitezela. Izan ere, 70 milioi horiek ez dakit Udalok ordaindu behar ote ditugun, hondakin urak arazteko ardura gurea delako, edo azkenik Eusko Jaurlaritzak hartuko dituen gastuak beregain, edo Gobernu Zentralak, edo gero Kupoarekin karta-jokoan erabakiko duten. Baina egiaz lotsagarria dena da 15 urte baino gehiago daramatzagula gure hondakin urak errekarra isurtzen.

Joseba Vivanco Retes: pentsatu behar dugu Administrazioak ez direla orain hasiko isun hori nork ordaindu behar ote duen eztabaidatzen, beno, momentuz Europatik iritsi den milioika euroko isunaren abisua. Besterik ez zen behar, orain nork ordaindu behar ote duen eztabaidatzen hastea, gauzak egiten hasi beharrean.

Alkatea: edozein kasutan, uste dut garrantzitsua dela hiru taldeak baterako mozio bat idatzi izana, horren puntu garrantzitsuan guztiok ados egotea, beste Administrazio batzuetan erantzukizuna nork duen alde batera utzita, Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuak. Bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Onartuta geratu da.

## **9. PP alderdiaren mozioa txirotasun energetikoari buruz eta mozio alternatiboak.**

Alkatea: puntu honetan hiru mozio ezberdin daude. Lehenengoa zuk aurkeztu zenuen Joseba, iruditzen bazaizu defentsa egin dezakezu.

Joseba Elejalde Ribacoba: hiru mozio daude, baina, nire ustez, bakoitzak gauza bat defendatzen du, mozio bakoitzak ez du zerikusirik besteekin. Gurea irakurri eta defendatu egingo dut.

### **“ALDERDI POPULARREKO UDAL TALDEAREN MOZIOA ARTZINIEGAKO UDALEKO ALKATEARI.**

*Artziniegako Udaleko Alderdi Popularraren Taldeak, Toki Erakundeetako Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 97. artikuluan ezarritakoaren babespean,*



aurkezten du, eztabaidarako eta, hala badagokio, hurrengo Ohiko Bilkuran onar dadin, ondorengo **MOZIOA**:

Arrazoiak:

Gure lehentasunetako bat txirotasun modu berriak edo egoera zaurgarrienean dauden pertsonen bizi-kalitatea kalte dezaketen egoerak uxatzea da. Hori dela eta, Artziniegako Alderdi Popularrak hilero 50 euroko gehigarri bat abiaraztea proposatzen du, oso pentsio baxuak jasotzeagatik, argiaren eta berogailuaren kostua ordaindu ezin dezaketen pentsiodunentzat. Artziniegako Alderdi Popularraren asmoa da prestazio hau probintzia osora hedatzea, izan ere, Gasteizko biztanleak duela bi urtetik ari dira prestazio hori jasotzen.

Arabako landa-eremuko Udalerrietan pentsio oso baxuak dituzten 500 pentsiodun inguru daudela kalkulatzeko eta neurri honek mesede egin ahal die eta, modu horretan, txirotasun energetikoaren ondorioak arindu daitezke. Hori dela eta, Artziniegako Alderdi Popularrak aurkezten du hurrengo **MOZIOA**:

- Artziniegako Alderdi Popularrak eskatzen dio Arabako Foru Aldundiari, Gasteizko Udalean duela bi urtetik egin bezala, hilean 50 euroko laguntza bat emateko diru-laguntzen deialdi bat abiaraz dezala, txirotasun energetikoaren ondorioak arintze aldera, hori jasotzeko eskubidea duten eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren, pentsioen gehigarri modalitatean, hartzaile diren pentsiodunentzat, betiere, Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan errolatuta badaude eta oraindik prestazio hori jasotzen ez badute”.

Joseba Vivanco Retes: guk mozioaren aurkako botoa emango dugu, izan ere, gure ustez, Alderdi Popularraren Gobernuan, Madriletik, 2017. urterako pentsioen igoera onartu denean, onartu dena, ez dakit 0,25€ ez ote ziren, pentsiodunentzako igoera oso txikia da, eta uste dugu kasu honetan Udalei kargatzea adineko pertsonentzako pentsio horri gaineratzeko premia, bada, ez dugu uste horretan...

Joseba Elejalde Ribacoba: Foru Aldundia da.

Joseba Vivanco Retes: edo Foru Aldundia, barkatu. Ez dugu uste, hasiera batean Gobernu Zentralaren ardura denean, pentsiodunentzat bizi-kalitatea nahi badu, bada...

Alkatea: Bozkatuko dugu lehendabizi alderdi popularrarena? Guk ere kontrako botoa emango dugu, alternatiba gisa aurkezten dugun testua mantenduz.

**Kontrako botoak:**

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4);

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Ez da onartu.

**“EAJ ALDERDIAREN ZUZENKETA TXIROTASUN ENERGETIKOAREN ERAGINEI BURUZKO PP ALDERDIAREN MOZIOARI.**

Inmaculada Vivanco Retesek, EAJ udal taldearen bozeramaileak Artziniegako Udalean, indarreko Erregelamenduaren babesean, txirotasun energetikoaren eraginei buruzko ZUZENKETA hau aurkezten du.

**ZUZENKETA.**

1.- Artziniegako Udalak eskatzen dio Estatuko Gobernuari pentsio arloko eskumena berehala eskualdatzeko, Gernikako Estatutuan jasotzen dena.

2.- Artziniegako Udalak eskatzen dio Estatuko Gobernuari eskumen hori eskualdatzen ez duen bitartean, pentsio duin batzuk ezarri eta pentsio bat jasotzen duten pertsona guztiek oinarritzko premiak (elikadura, jantziak, elektrizitatea, berogailua, ura...) ordaindu ahal izatea berma dezala

3.- Artziniegako Udalak dei egiten dio Estatuko Gobernuari hornidura elektrikoko enpresekin negozioa dezan txirotasun energetikoko egoeran egon daitezkeen pertsona guztientzat hornidura bermatze aldera”.



Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Joseba Elejalde Ribacoba: Espainiako Parlamentuan onartu berri da, egoera zaurgarrienean daudenei argia etetea legez debekatzea adostu da. Nire ustez, horrek adierazten du Espainiako Parlamentua dagoeneko ari dela lanean hemen eztabaidatzen ari garen hori ekidin dadin. Bilduk berea azaltzen duenean, hiru gauza irakurriko ditut, izan ere, jakina, ez dut nire mintzaldia egingo, Bilduk kontrako botoa eman duela pentsatzen baitut. Bilduk berea azaldu arte itxarongo dut eta, orduan, azalduko dut zergatik emango diden kontrako botoa EAJ alderdiak aurkeztutakoari nahiz Bilduk aurkeztutakoari.

Joseba Vivanco Retes: guk EAJ alderdiaren honetan abstentzioa emango dugu, izan ere, mozioa leun samarra dela uste dugu, ez da oso zehatza, eta abstentzioa emango dugu.

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3);

Onartuta geratu da.

Joseba Vivanco Retes: EH-Bildu taldeak aurkezten duen mozioak talde batzarkideak Arabako Batzar Nagusietan aurkeztutakoarekin dauka zerikusia, hura ere txirotasun energetikoari buruzkoa.

#### **“EH BILDU TALDEAREN MOZIOA, ALDERDI POPULARRAK TXIROTASUN ENERGETIKOARI BURUZ AURKEZTUTAKOAREN ALTERNATIBA.**

*Manuel Rezola Perezek, EH Bildu talde batzarkideko prokuradoreak, Arabako Batzar Nagusietako indarreko erregelamenduaren babesean, Arabako zenbait herritarrek jasaten duten txirotasun energetikoari eta zailtasun ekonomikoak dituzten kontsumitzaileen babesari buruzko zuzenketa hau aurkezten du:*

1.- Estatuko Gobernuari eskatzea Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 1080 eurora arte areagotu dezala (Europako Gutun Sozialak gizarteratzeko oinarritzko errenta modura finkatzen duen gutxieneko soldataren % 90), txirotasunaren aurka borrokatzeko estrategien barnean, zenbateko hori pentsio edota prestazio modura jasotzeko gutxieneko diru-sarrera modura adieraziz.

2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren estaldura-balioak 1080 eurora arte areagotu dezala, eta zenbateko horretatik beherako diru-sarrerak dituzten pertsona guztiei hartarako sarbidea berma diezaiela.

3.- Eusko Jaurlaritzari eta Arabako Foru Aldundiari eskatzea, modu koordinatuan, eta Energiaren Euskal Erakundearen (EEE), Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren eta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuetako Sailaren bidez, txosten bat taxutu dezatela, Arabako Lurralde Historikoan txirotasun energetikoaren adierazleak ezartze aldera.

4.- Dei egiten diogu Estatuko Gobernuari, bere Konstituzioko 128. artikulua betez, energiaren sektorean esku har dezan epe luzearako Energia Plan bat taxutu dezan, ingurumen arloko iraunkortasunaren, autonomia energetikoaren, hornidura-elkartasunaren eta bideragarritasunaren irizpideak kontuan hartuz, eta baita energiako bidezkoagoak diren prezioen sistema bat ezarri dezan”.

Joseba Vivanco Retes: esan bezala, bere garaian EH-Bildu taldeak Batzar Nagusietan aurkeztu zuen mozio bat da eta, esan dezagun, erreskatatu egin dugula Osoko Saiora ekartzeko, Alderdi Popularrak aurkeztutakoaren ildotik.

Joseba Elejalde Ribacoba: hasieran aipatu dudan moduan, bakoitza ezberdina da besteekeko. Argi utzi nahi dut mozio ezberdinetan nor kezkatzen den pertsonekin eta nor kezkatzen den etxeko gatazkekin, nork defendatzen dituen bitarteko gutxi dituzten herritarrak eta nor kezkatzen den gehiago eskumenak edukitzeaz. PP alderdiak 50 euroko gehigarria



eman nahi die pertsona horiei gabezia horiek arintzeko, galdara piztu ezin duten edo berogailua ipini ezin duten familiei lagundu nahi die. Zuek, EAJ eta Bildu alderdiek, ez duzue nahi hori egin dadin, ez dituzue familia kaltetuenak lagundu nahi, bitarteko gutxien dituztenak. Ez da dena eskumen eta horiek eskualdatzeak ez du esanahi kudeaketa hobea lortuko denik. Adibide modura, bakarra aipatuko dut, Euskadin Foru Aldundiek kudeatutako Ogasunarena. Joan den urtean Espainiako Gobernuako Ogasun Ministerioak % 2,5 jaitsi zuen PFEZ zerga errenta baxu eta ertainetan eta, hemen, Euskadin, Aldundiek aurretik zegoen PFEZ zerga mantendu zuten, ez zuten jaitsi. Horren ondorioz, pertsona edo familiako hilean 50 euro inguruko errenta galdu zen. Hots, urtean 600 euro gutxi gorabehera. Horregatik esan nahi dizut gauza bat Alderdi Popularrak eskatzen ari dena dela, pentsio baxuak dituzten pertsonen osagarria ematea, autonomo izan diren emakume eta gizon askori adibidez, edo alargun-pentsioa dutenei, izan ere, kasu askotan, ezin dute galdara piztu edo berogailuaren argia piztu behar den denbora guztian; eta beste gauza bat da hemen eskatzen ari garena, eskualdaketak egotea... Nire ustez, azken buruan, herritarra defendatu behar da, une honetan dituen gabeziarako eman behar zaio, sufritzen ari direnarekin eta ondoren, bada, beste mozio hauetan proposatzen denaz hitz egin daiteke. Horregatik kontrako botoa emango dut bietan.

Alkatea: Niri, Joseba, oso ongi iruditzen zait esaten duzun hori. Zure mozioaren helburua Estatuari dagokion eskumena Arabako Foru Aldundiak beregain hartzea da. Hemen bakoitzak berea, eta pentsioen eskualdaketa eraginkorra balitz, eta Madrileko Gobernuak dagozkion eskumenak beregain hartuko balitu, agian ez litzateke beharrezkoa izango hilean 50 euroko bonu sozial hori eskatzea Arabako Foru Aldundiari.

Joseba Elejalde Ribacoba: eta eskualdatuta ditugun eskumenetan lana behar bezala beteko balitz, bada, agian, azken batean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan % 3,5eko iruzurra izan beharrean, agian ez genuke iruzurrik izango. Horrek 480.000.000 euroko aurrekontua suposatzen du, izan ere, 20.000.000 euro baino gehiago dira azken batean justifikaziorik gabe joaten direnak joan behar ez diren lekuetara. Horrek iruzurra izena du, eta Eusko Jaurlaritzak hori ez du ukitu nahi, horregatik diot eskumenak izateak ez duela esanahi kudeaketa hobea izango denik. Egin behar dena zera da, ditugun baliabideak ahalik eta ondoen kudeatu gure herritar eta auzotarrei ahalik eta bizi-kalitate onena emateko. Eta orain hasten bagara eztabaidatzen eskumenak etorri behar duen edo etorri behar ez duen, edo eskualdatu egin behar ote didaten nik nire egin eta hobeto kudea dezadan, bada, esaten dizut eman dizkizudan datuekin, horietako bat Ogasunarena, ongi geratzen dela noski, Espainiako gainerako lurretan, Estatuak eskumena zuen Autonomia Erkidegoen kasuan % 2,5 jaitsi zen, eta horrek hilean 50 euro suposatu zuen familientzat, eta Foru Aldundien euskal ogasunetan ez zen jaitziera hori aplikatu, horren ondorioz, Euskadiko langile guztiok hilean 50 euro gehiago ordaindu ditugu PFEZ zergan. Eta 600 euro kendu dizkigute gure ohiko gastuetan erabil genitzakeenak edo gastu berezietan, edo oporraldietan. Eskumenak izateak ez du esanahi hobeto kudeatzea. Hobeto kudeatzen jakitea da, kudeaketa duzunean kudeatzea, eta nik hemen jarri ditudan bi adibideetan Eusko Jaurlaritzak asko dauka ikasteko.

Alkatea: Nire ustez, adibide asko dago eskumenak hemen daudenean eta zerbitzuak hemen ematen direnean, hobeto ematen direla azaltzeko. Esate baterako, Udalen finantzaketa. Aldera dezagun Euskadiko Udaletako finantzaketa Estatuko Udaleko finantzaketarekin. Horixe da bat. Bozka dezagun Bilduren mozioa.

Kontrako botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); onartuta geratzen da.

Ez da onartzen, Alkatearen kalitateko botoarekin.



## **10. Garoñaren itxierari buruzko EH Bildu alderdiaren mozioa eta mozio alternatiboa**

Inmaculada Vivanco Retes: EAJ alderditik aurkeztuta zegoen mozioa baztertzen dugu.  
Joseba Vivanco Retes: mozioa irakurriko dut.

### **“GAROÑARI buruzko mozioa**

*Azken hamarkadetan asko izan dira Euskal Herriko eta, batez ere, Arabako instituzio eta ekimen sozial ezberdinak Garoñako Zentral Nuklearra itxi eta eraisteko aurrera eran dituzten jarduera eta ekimenak. Artziniegako Udalbatzak ere hainbatetan adierazi du bere iritzia zentzu honetan.*

*Garoñako Zentral Nuklearra berriz irekitzeko erraztasunak jartzeko borondatea agertu du CSNko lehendakariak azken hilabeteetan eta berriz ere alarma gorri guztiak piztu dira arriskuak agerian utziz.*

*Horrengatik guztiagatik, EH Bildu taldeak honako puntuak aurkezten ditu osoko bilkuran eztabaidatu eta onartuak izan daitezen:*

*1.- Artziniegako Udalak estatuko Gobernuari exijitzen dio Garoña berehala ixtea bere bizitza erabilgarria aspaldi gainditu zuelako eta berriz irekitzeak arabarren segurtasuna modu larrian arriskuan jartzen duelako.*

*2.- Artziniegako Udalak exijitzen du CSNren antzeko erakundeen jarduerak arduran eta bermeetan oinarrituta egotea eta energia nuklearraren erabilerak herritarren segurtasunari dagokionez izan ditzakeen arriskuen aurrean erabateko konpromisoa izatea. Halaber, exijitzen die, inolaz ere ez dezatela luzatu dagoeneko amortizatuta dagoen eta teknologia erabat zaharkitua duen zentral nuklearraren bizitza erabilgarria.*

*3.- Artziniegako Udalak estatuko Gobernuari exijitzen dio, erabaki politikoa den heinean, erakunde horien irizpideen gainera, talde politiko eta sozialek, erakundeek eta herritarrek berehala ixteari buruz duten iritzi orokortua lehenetsi dezala eta modu horretan jardun dezala.*

*4.- Artziniegako Udalbatzak CSNko presidente den Fernando Marti Sharfhausen-en berehalako dimisioa eskatzen du. Bere karguko lanetan daukan opakutasunari, Santa Maria de Garoña zentral nuklearraren irekitzeko aukeren inguruan duen alderdikeria nahiko argiak gehitzen zaizkio. Bere karguan herritarren segurtasuna izan beharko litzake lehentasun eta ildo nagusia eta ez hirugarren batzuek izan ditzaketan interes ekonomikoak.*

*5.- Artziniegako Udalak Mozio honen berri emango dio estatuko Gobernuan dagokion Ministerioari, Arabako Foru Aldundiari, EAEko Legebiltzarrari, Kongresuari eta CSNri.”*

Joseba Vivanco Retes: hau da aurkezten den mozioa. Hasiera batean EAJ alderdiaren mozio alternatibo bat zegoen, puntuetako batekin ez zeudelako ados. Ez dakit ulertu behar dugun EH-Bilduren mozioari babesa emango zaiola.

Inmaculada Vivanco Retes: bai, mozioa baztertuko dugu eta gure botoa aldekoa izango da.



Joseba Elejalde Ribacoba: nik kontrakoa botoa emango dut eta hau da arrazoien azalpena. Lehenik eta behin, osoko bilkura honetan argi eta hala adierazita gera dadin, Garoñako zentral nuklearra behin betikoz itxita dagoela 2013ko uztailaren 6az geroztik, 2013ko uztailaren 10eko 164. zenbakidun Estatuko Aldizkari Ofizialean irakurtzen denez. Bigarrenik, argi eta garbi gera dadin, behin betiko etete hori Alderdi Popularraren gobernu batekin gertatu zela. Eta hirugarrenik, Bildu eta EAJ alderdiei dei egin nahi diet alferrikako eztabaidak tiraderan utz ditzaten, dagoeneko ebatzita dauden arazoekin herritarrak aztora ez ditzatela eskatu nahi diet, izan ere, horrela iritzi publikoa sumindu eta tenkatzea baino ez da lortzen. Eta laugarrenik, Udal honi eskatuko nioke elkartasuna adieraz dezala, tamalez lana galduko duten milaka familiekin, gehienak, Burgos, Errioxa eta Euskadiko familiak. Udal honi eskatzen diot bat egin dezala beste Udal batzuekin eskumeneko Administrazio guztiei eragindako herrietan lan egin eta inbertitu dezatela eskatu eta erreklamatzeko, inor langabezian gera ez dadin. Hori da benetan kezagarria dena. Une honetan lanik gabe geratuko direla milaka familia.

Alkatea: Ekingo diogu bozkatzeari?

Kontrako botoak:

Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

## **11. EH Bilduren mozioa Estatuko Segurtasun Indarren biltzeari buruz eta mozio alternatiboa**

### **“GURE SEGURTASUN EREDU PROPIO BATEN NORABIDEAN, ESPANIAKO INDAR POLIZIALEN ERRETIRATZEA ALDARRIKATZEKO**

#### **MOZIOA**

*Euskal Herria, Europako polizia eta indar armatu ratorik altuena duen herria da. Kalkuluen arabera, lurralde osoan 23.000 efektibo daude, 3.000.000 biztanle duen eremu batean. Europako erakundeek aholkatzen duten estatistiken arabera, 6.000 polizia efektibo izan beharko luke. Honek gainera, kostu ekonomiko izugarria du, 1.500 miloi euro ingurukoa urteko, zuzenean edo kupo moduan euskaldunok ordaintzen duguna.*

*Bertako polizia indarrez gain, Estatuetako indar armatu eta polizialen presentzia izugarria da. Hamarka luzeetan bizi izan dugun gatazka armatuaren baitan, espainiar zein frantziar indar armatuak herri honetan izan duten presentzia biderkatu egin da. Bost urte luze badira, Aieteko Adierazpenaren baitan gatazka armatua herri honetatik desagertu zenetik. Hala ere, espainiar zein frantziar indarren presentziak bere horretan jarraitzen du. Inolako logikarik gabe burutzen dituzten funtzioak bikoizteaz gainera, egunerokoak dira oraindik hiritarren eskubideak justifikaziorik gabe murrizten zaizkien oinarritzko eskubideak, errepideetako kontrolak, identifikazioak, jazarpenak... burutuz. Euskal Herritarren gehiengoak iraganeko orri hori gaintitu nahi duen honetan desmilitarizazioaren eremuan urratsak emateko garaia iritzi da. Euskal eragile eta instituzioek bat egin behar dute beren jardun politiko eta instituzionalarekin norabide horretan.*

*Modu mailakatuan Euskal Herritik Estatuko Segurtasun Indarren erretiratzea beharrezkoa ikusten dugu. Era berean, herritarren babes eta zerbitzu lanak Euskal Poliziek betetzea da eman beharreko urratsaren beste atala.*



*Atalka egin beharreko bide horretan, Estatuko Segurtasun Indarren kopuru eta funtzioa gaur egun indarrean dagoen legedira egokituko da. Iraganean geratu diren egoerak ezin dira aitzakia izan, gaur egun gure herrian dagoen indar armatuen dentsitatea mantentzeko. Gaur egunean indarrean dagoen legeriaren arabera, eta modu progresiboan Ertzaintzak eta Nafarroako Foruzaingoak beren gain hartuko dituzte herritarren babes eta zerbitzu lanak, dagokien mailan herri bakoitzeko Udaltzainekin batera.*

*Hau guztia kontutan izanik, Artziniegako EH BILDUK, honako ebazpen proposamena aurkeztzen dio Osoko Udal Batzarrari, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin:*

*1.- Udal honek, Espainiako Policía Nacional, Guardia Zibil eta Espainiako Armadaren errepliege osoa aldarrikatzen du.*

*2.- Udal honek, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera eta Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartutako 111/2013 Legez besteko Proposamenarekin bat eginik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio EAeko lurraldean egin beharreko errepliege plangintza burutu dezan eta Legebiltzarrean aurkezteko, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.*

*3.- Udal honek, Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuko Barne Ministerioa biltzen dituen Segurtasun Batzordean Legebiltzarrak onartutako plan hori gauzatzearen beharra aldarrikatzen du.*

*4.- Udal honek, hartutako erabaki honen berri emango die herritarrei, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Barne eta Defentsa Ministerioei eta Espainiako Gobernuaren Presidenteari."*

Joseba Vivanco Retes: hau da EH-Bildu alderdiak helarazten duen mozioa. Gure kasuan, EAJ alderdiarekin akordioaren bat planteatzen saiatu ginen, izan ere, mozio alternatibo bat aurkeztu zuen hark ere, gero irakurriko dena pentsatzen dut. Baina, EAJ alderditik mozio horrekin, esan dezagun, tarteko egokitzapenarekin, ez zeudela ados adierazi ziguten. Horrenbestez, aurkeztu genuen mozioa mantentzen dugu.

Inmaculada Vivanco Retes: EAJ alderditik uste dugu EH-Bildu taldetik aurkeztu duzuen mozioa EH-Bilduk Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako ez legezko proposamen baten hedapena dela, eta EAJ alderdiak aurkeztuko duen testuari egindako zuzenketa ere EAJ alderdiak Legebiltzarrean Bilduren proposamenari egindako zuzenketa da, Bilduk ez legezko proposamena egin ondoren, oraindik eztabaidatu ez dena Legebiltzarrean.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik bietan kontrakoa botoa emango dut, jakina. Bildu alderdiari dagokionez, Ertzaintza eta Nafarroako Foru Polizia nahastea, paranoiatik hurbil dago. Elkarrekin inolako zerikusirik ez duten bi erkidego izanik. Baina tira, nik hemen irakurriko ditudan hitzak, egia esatera harrotasunez adieraziko dut: PP alderdiarentzat eta Udal honetan alderdi hura ordezkatzeko duen zinegotziarentzat plazera eta ohorea Espainiako segurtasun gorputz eta indar guztiak defendatzea. Harrotasun kontua da sarritan beraien segurtasuna arriskuan jarriz gure segurtasuna zaintzen duten segurtasun gorputz guztiak erabat babestu eta defendatzea. Nire baldintzarik gabeko babesa azaldu nahi diet Ertzaintzari, Guardia Zibilari, Miñoiei, Tokiko Poliziari eta Ejertzitoari beren lan, profesionaltasun eta erantzukizunagatik.

Alkatea: bozka dezagun EH-Bildu alderdiak aurkeztu duen mozioa.

Kontrako botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:





Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4);

Ez da onartzen, Alkatearen kalitateko botoarekin.

Inmaculada Vivanco Retes: EAJ alderdiak Legebiltzarrean aurkeztu duen zuzenketa irakurriko dut, EH-Bildu alderdiak aurkeztutako ez legezko proposamenari egindakoa.

## **ZUZENKETA**

*1 Artziniegako udalak berretsi egiten du Espainiako gobernuari egindako erreklamazioa, bere segurtasun indarrak eta kidegoak beren eskumen-eremu hertsira egokitu ditzan, Gernikako Estatutuan eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoan jasotakoarekin bat.*

*2.- Artziniegako udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio utz diezaiola bide judizialaren bidez Segurtasun Batzordean hitzartutako Ertzaintzako kide kopurua zalantzan jartzeari, eta oztopoak jartzeari Ertzaintza euskal gizartearen zerbitzura dagoen polizia integraltzat hartzeko orduan, inteligentzia mailan eta maila operatiboan lan handia eskatzen duen segurtasunerako europar estrategia baten baitan, Gernikako Estatutuarekin eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin bat.*

*3.- Artziniegako udalak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio Segurtasun Batzordearen baitan lan egin dezala Estatuko segurtasun kidego eta indarren Euskadiko kopurua egokitze aldera, benetako segurtasun-beharren eta Gernikako Estatutuan emandako eskumenen arabera.*

Joseba Vivanco Retes: aipatu nahi dut EAJ alderdiak proposatzen duen mozio alternatiboan zenbait elementu berri barneratzen direla, esate baterako, Gobernu Zentrala, Espainiako Gobernua, Eusko Jaurlaritza hartzen ari den erabakien aurka aurkezten ari den errekurtsio judizialen gaia eta, gero, batez ere lehen puntua, izan ere, EH-Bildu alderdiak "biltzea" proposatzen du eta EAJ alderdiak apur bat moldatu eta "egokitzapena" ipintzen du. Uste dut, ziurren, EAJ alderdian ere ados egongo direla "biltze" hitzarekin, leun edo irekiagoa den egokitzapena ipintzen duen arren.

Alkatea: bozkatzeari ekingo diogu.

Kontrako botoak:

Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3);

Ez da onartu.

## **12. Alkatetzako ebazpenen berri ematea.**

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2016. urteko 173-227 bitarteko Dekretuak eta 2017. urteko 1 eta 2 zenbakidun Dekretuak direla jakinarazi du.

Arkaitz San Jose Martinez: gauza berari buruzkoak diren Dekretu ugari daude. Alde batetik, fakturak onartzeari buruzko zenbait espediente daude, horiek urtearen amaierakoak direla pentsatzen dugu, hori baita onartzeke dauden fakturak onartzeko unea, baina tira, ez ditut Dekretuak zenbatu baina asko dira, 150.000 euro ingurukoa den batukari baterako, eta helarazten zaigun Dekretu bakoitzean "X" eranskin modura atxikitzen den fakturen zerrenda onartzea ipintzen du "edozein" zenbategokoak. Pentsatzen dut Dekretura erantsita atxikiko dela, baina gure taldeak fakturen zerrenda hori ere atxikitzea eskertuko luke.



Alkatea: bai, izan ere, kode hori makina-fitxategi bat da, hots, bikain ateratzen da. Uste nuen gaineratuta zeudela. Dekretuetan horrela ez, ez dira igortzen, baina Dekretuen liburuan gaineratzen dira hori osatzen duten fakturak... Hori T fitxategi bat da, aplikazio informatikoan dagoen T fitxategiarekin lotuta dagoena.

Arkaitz San Jose Martinez: bestalde, badira udal kiroldegia jarduera ezberdinetarako lagatzeari buruzko lau Dekretu, 179, 184, 199 eta 205 zenbakiak, zeintzuetan Udal Kiroldegia lagatzen den zenbait jarduera hatzeko. Horietako batean udal talde bati lagatzen zaio, eta horri dagokionez, ez dugu aparteko ezer adierazteko. Beste hirurak udalerritik kanpoko elkarteei lagatzekoak dira eta, aipatu genuen moduan, uste dut uda ondorenean izan zela, espazio horiek lagatzeko zein irizpide jarraitzen diren jakin nahi genuen, itxura batean ez baitago argi. Berez, aurrekoan ere galdetu genuen eta ez zitzaigun erantzunik eman. Beno bai, interesa erakutsi zuen jendea zegoela esan zitzaigun, orduko hartan ez zen elkarte bat, baina kirol jarduerekin hasteko premia zuten eta, bada, orduan, errazteko... eta oso ongi iruditzen zaigu, baina irizpide bat jarraitu dadila. Izan ere ez dago garbi, edo ez dugu oso garbi, edo ez da egin nahi, izan ere, oker ez banago, ezartzen dira zenbait prezio edo kuota instalazio hori erabiltzeko, eta Dekretu horietan ez da aipatzen kobrantza hori onartu denik ere. Hori, oro har, guztien inguruan. Eta, zehazki, lau horietako bitan instalazioaren eskaera bat aipatzen da, bat kirol kolektibo batena eta bestea Amurrioko Udalarena, Amurrioko Bañueta kiroldegiko langileek egindako grebari erantzuteko kiroldegia erabiltzeko. Zergatik esku hartu behar du Udalak gurekin zerikusirik ez duen lan-gatazka batean? Eta, azken finean, esku hartu du, eta ez langileen alde, baizik eta enpresaren alde. Gure ustez, gatazkatik at mantendu beharko litzateke. Jakina, langile batzuk greba egiten ari badira lan-aldarrikapen batzuk dituztelako da, eta azken batean zerbitzua ematea patroien aurka edo alde ez da gure atsegineko kontua.

Alkatea: kasu zehatz horietan Amurrioko Udaletik iritsitako eskaeraren bat dugu, beste bat Aiarako Udaletik iritsi zaigu, aldizka erabiltzeari buruzkoa, zenbait kasutan grebaren ondorioz, beste batzuetan jokatu ohi duten lekuan ezohiko metaketa gertatzearen ondorioz eta, bada, Udalen artean dagoen lankidetzaren barruan kokatzen da, hots, egun batean etorri hona eta erabili gure instalazioak, agian beste noizbait guk beharko ditugu haien instalazioak, edo behar dezakegu, eskatu genuen moduan, puzgarriak edo kiosko bat, edo materiala uzten digute, finean, hori izan da lankidetzaren arrazoia, unean uneko zerbait izan da. Jakina, horrek jarraipena izan balu eta denboran luzatu izan balitz, planteatu egin behar genuke. Besterik gabe, Udalen arteko lankidetzaren barnean kokatu behar da, Aiarako Udalari sarritan txosna utzi izan diogun moduan, Aiarako Udalak noizbait bere puzgarriak uzten dizkigu, hori da kontua.

Arkaitz San Jose Martinez: orduan, igerilekua eskatzen badugu, haiek hartzen dute kuota beregain? Bañueta igerilekura joan gaitezke, edo nola funtzionatzen du honek?

Alkatea: tira ez, ez da gauza bera.

Arkaitz San Jose Martinez: Bañueta kiroldegia erabiltzen duen jendeak egin du kasu honetan udal kiroldegia erabiltzeko eskaera.

Alkatea: ez da gauza bera. Kirol klub bat da, behin bakarrik eskatu duena, uneko zerbait izan da.

Arkaitz San Jose Martinez: eta Udal bat.

Alkatea: bai, eta Udal bat.

Joseba Vivanco Retes: nik banuen beste kontu bat Alkatetzako Ebazpenekin lotuta, besteak beste, Alkatetzari galdetu nahi diot zergatik Ebazpen edo Dekretu sorta honen barruan ez den barneratzen alde historikoan Goienkale junteatzeko lanen esleipenari dagokion Dekretua. Hemen Alkatetzaren Ebazpena dugu, zeinaren arabera partida, lanaren kostua, diru-sarreraren jatorria eta kostua ezartzen diren, baina deigarria egiten zaigu lan hori esleitzeko Dekretu zehatz hori sortan ez barneratzea. Egia da lan txikia dela, eta hasiera batean, ez dela derrigorrezkoa Dekretua hemen barneratzea, baina badira esku-hartze jakin batzuen beste zenbait esleipen, zeintzuetan Alkatetzaren Dekretua barneratzen den hemen. Deigarria egin zaigula adierazi nahi dut, eta ez dakigu Alkatetzaren Dekretu hori hemen ez barneratzeak zerikusirik duen lan horien esleipenarekin, izan ere, azaroaren 15ean deigarria egin zitzaigun Idazkaritzako txosten bat, zeinetan ziurtatzen zen Idazkaritzak egun horretan jakin zuela Bando



bidez, Artziniegako gainerako auzotarrek bezalaxe, junteatzeko lan horiek hasiko zirela, tartean esleipenik ere ez zegoenean. Gainera, gaineratzen zen esleipen-espeditentea jasota, Idazkaritzak ohartarazten zuela zein azaleratan gauzatuko zen adierazteko planorik ez zegoela, eta ez zegoela nahikoa gordailu teknikariak adierazitakoa gauzatzeko, izan ere, konponketa horren kostua 7.202 eurokoa izango zela jakinarazten zen, partida 4.849 eurokoa zenean. Hori azaroaren 15ekoa da. Orain, abenduan, behin lan horiek amaituta, berriro diot hasiera batean esleipen formalik egon gabe, bada, abenduan udal teknikariak txostena igorri zuen lanei oniritzia emanez 5.827 eurotan. Hau da, konponketa horretarako zegoen dirua baino 1.000 euro gehiago. Hemen, Alkatetzak atxikitzen digun ebazpenean ikus dezakegunez, 4.849 ipintzen zuen, eta teknikariaren txostenean 5.827 euroko kopurua agertzen da, hau da, 1.000 euro gehiago. Horrenbestez, ikusten dugunez, ez dakit kontuek huts egin duten, eta gainera ez da Dekretua barneratzen, normalean Dekretu horiek guztiak barneratu egiten direnean. Ez dakit azkenean 5.000 euro ordaindu diren, ala 4.000 euro ordaindu diren.

Alkatea: bada, egia esatera, oraintxe bertan ez dakit. Badakit arkitekto teknikoak egindako balorazio bat zegoela, zeinaren arabera metro koadroa euro kopuru jakin batean ezartzen zen, eta konponketa zenbat metro koadrotan zen beharrezkoa jasotzeko estimazioa ere barneratzen zela. Hori bazegoen, bazegoen aparejadorearen balorazio bat, Raulena.

Joseba Vivanco Retes: bai, urriaz geroztik zegoen bai.

Alkatea. Dekretua? Bada, egia esatera, ez dakit, egina dagoen ala ez dagoen egina, gaineraturik dagoen ala ez, ez dakit.

Joseba Vivanco Retes: ez da gaineratu, ez dakit lan hori hura egin zuen enpresari esleitu zitzaizola adierazteko dokumenturik dagoen ere, eta azkenean 5.000 euro ordaindu diren ala 4.000 euro ordaindu diren. Egiaz ordaindu denaren inguruko azalpena ematea nahi dugu, izapidea ongi burutu bada, izan ere, hemen bada Idazkaritzaren txosten bat, non gauzak falta direla aitortzen den. Ez dugu ulertzen ezta, izan ere, uste dut lehen aldia dela, ez da ohikoa Idazkaritzak halako gauzak falta direla adierazteko txosten bat egitea.

Alkatea: noizbait bai.

Joseba Vivanco Retes: baina horren zehatza, lanaren esleipenik ez dagoela adieraziz eta, kontua da badela bando bat lanak gaur hasi behar direla adierazten duena, bada tira, hor zerbaitek huts egin du. Eta gainera zenbatekoetan ere dantza handi samarra da.

Alkatea: buruz ari natzaizu hitz egiten, hobe litzateke espeditentea aurrean izanda hitz egitea. Raulen txostenean uste dut bi prezio ezberdin proposatzen zirela, eta azkenean baten alde egin zen.

Joseba Vivanco Retes: orduan, azalpenak ematea nahiko genuke.

Alkatea: hori ikus dezakegu. Espeditentearekin hobeto, nire ustez. Edozein kasutan, lan txiki batez ari gara hitz egiten.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina alde guztietatik herren egiten duen obra txiki bat da, dokumentazioari dagokionez behinik behin.

Alkatea: bada, agian bai, baina bazen Raulek egindako aurretiko txosten bat, balorazio bat, eta azkenik fakturan jasotzen dena junteoa egindako metro karratu kopurua da, ezarritako prezioan.

Joseba Vivanco Retes: agian ez, bai. Agian herren egiten du ez, herren egiten du.

Alkatea: agian herren egiten duela irudituko zaizu baina ez dago deus arrarorik.

Joseba Vivanco Retes: Ikusiko dugu herren egiten duen.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik (3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH-Bildu alderditik (4); Joseba Elejalde Ribacoba, PP alderdiko zinegotzia (1).

### 13. Udal kudeaketaren kontrola



• Alkatea: gauza garrantzitsu bat esan nahi dizuet, Erreta Tuterako auzotarrek uraren kontuarekin egin diguten kexari buruzkoa. Azterketak egin ziren, eta Kantauriko Urkidetza ur kontsorzioak burutzen ari diren zenbait esku-hartze igorri zizkigun. Horietako bat Erretan iragazki bat instalatzeari buruzkoa da. Haur egun, Gordelizen baino ez dago iragazkia. Era berean, depositua garbitu behar zuten urtean behin, eta ondoren bajaran dagoen sarea garbitzeko gomendioa dago, guk ere maiz egiten duguna. Badakit Erreta eta Gordelizek ez dutela ura tratatzeko sistemarik onena, ura urtegitik jasotzen baitute zuzenean. Lan bat dago burutzeke oraindik, hots, depositutik zuzenean Gordelizera doan tutu bat egitea, bertatik ponpatzeko. Zuen eskura jarri zuen Kantauriko Urkidetza ur kontsorzioak egindako txostena.

Joseba Elejalde Ribacoba: ñabardura modura, uraren zaporea nazkagarria da oraindik. Gaur Erretan egon naiz, eta ur hori edangarria izango da, baina zapore oso txarra dauka.

Joseba Vivanco Retes: hemen adierazi bakarrik aplikatuko diren neurriak Urkideztzak aplikatuko dituen uneko neurriak direla, ziurrenera, zikintasun hori apur bat arintzeko.

Alkatea: ez, ez da zikintasunerako, baizik eta klorazioa hobetzeko.

Joseba Elejalde Ribacoba: ura zikin irteten zen, urak kloro zapore handia du, kiratsa dario, eta auzotarren kexa agerikoa da.

Joseba Vivanco Retes: edozein kasutan, ez dugu ahantzi behar, Eusko Jaurlaritza dela, lehen kolektoreen gaia aipatu dugu, eta Eusko Jaurlaritza da, oker ez banago, gai horretan ardura, konpromisoa, duena, eta ez dakit bere garaian aurrekontuan sartu zen, saneamendu-sare berria, hasiera duena ...

Alkatea: lan hori kolektoreen proiektuaren testuan agertzen da.

Joseba Vivanco Retes: hor agertzen da, baina azken finean Eusko Jaurlaritzak esku hartu behar zuen, izan ere, esku-hartze hori ere atzeratuta dago; uste dut hor, oker oroitzen ez badut, lehen Artziniegaz ez zirela oroitzen esan duzu, esan duzunean gogoratu dut badela EH-Bilduk 2015ean Batzar Nagusietan aurkeztutako mozio bat, non zenbait egoera aipatzen ziren, eta horietako bat da Eusko Jaurlaritzari eskatzea Angostinako urtegitik hornidura-sarea berri dela. Eusko Jaurlaritzak egina izan beharko lukeen esku-hartze bat da, izan ere, proiektatuta zuen, eta agertzen den dokumentazioan erreparatzen badugu, epe zenbait ageri dira ez dakit noizkorako egonda egongo dela adieraziz, 2017. urtean gaude eta ez dago eginda. Eta obra hori, da neurri batean, Erreta, Gordeliz eta Bentak uraren kontuarekin dituzten arazoak konponduko dituen. Nire ustez, agian, Urkideztzak Erreta, Gordeliz eta Bentan uraren kalitatea hobetzeko hartuko dituen neurri horiez gain, agian, lehen egin dugun moduan, hiru alderdiok ados jarri beharko ginatke Eusko Jaurlaritzari eskatzeko behingoz saneamendu-sare berri hori egin dezan, urtegitik udal depositura arte iritsi behar dena.

Alkatea: horrela da bai, ez dut inolako zalantzarik.

Joseba Vivanco Retes: guk eskatzen ez badugu, are gehiago hainbat urtez atzeratu dela kontuan hartuta, ez dut uste inor etorriko denik hori orotaraztera, agian guk ere urrats hori eman behar genuke, lan hori eskatzekoa. Oker ez banago, Bentan "moldaketa" egin zenean, duela bi edo hiru urte, Eusko Jaurlaritzak lehendabizi esan zion Artziniegako Udalarik moldaketa hori egin ez zezala, haiek eroapen-sare berria egingo zutelako. Gero atzera egin zuen ez dakit zergatik, eta lana ez zen egin. Ez dakit zer gertatuko zen, baina moldaketa egin zen azkenean, baina haiek errepikatzen zuten "ez, ez hori guk egingo dugu, zertarako egin behar duzue zuek hori". Agian hornidura-sarea berri dadila eskatzeko unea iritsi da.

• Arkaitz San Jose Martinez: nik kontu pare bat daukat. Beno, ikastetxerako sarbidearen gaia, bere espaloiekin, osoko bilkuran askotan aipatu den gaia da. Guk askotan planteatu dugu. Jakina, une honetan dagoeneko ez dut eskatuko informazio-bilkura bat, aurrez egin izan dudan moduan, baina oroitarazi nahi dut horietako askotan azpimarratu dugula gure ustez oinezkoari lehentasuna ematen ez zion lan bat zela. Hau da, bidegurutze guztiak, elkargune guztiak, ibilgailuei lehentasuna emateko daude pentsatuta. Eta logikoa izan daiteke nolabait zeharbide orokorrean izatea, baina ez du inolako zentzurik eskola-zonalde batean oinezkoen mugikortasuna ahalbideatzeko ikuspegia ez barneratzea. Hara oinez jaitsi den edozein ohartuko da, seinaleztapena errespetatu eta oinezkoentzako pasabideak erabili nahi baditu, bestelako irtenbideak ezarriz gero beharrezkoak ez diren joan-etorriak egiten hasi beharko dela. Etorkizunean konpondu beharreko zenbat dela uste dut, izan ere, ez zait egokia iruditzen



irtenbidea hori izatea, baldin eta nahikoa trafikoa ez egotea eta jendeak nahi duen lekutik gurutzatzea ez badugu nahi edo ulertu nahi, jendeak joan behar duen lekutik joatea nahi badugu egiaz, jendea ibiltzen den tokitik egokitu beharko dugu hori. Lanak egiten ziren bitartean hori ere kontuan hartzeko aukera galdu da.

Alkatea: puntu zehatz horri dagokionez, behin eta berriz saiatu gara Aldundiarekin bertan bigarren zebra-bide bat ipin dadin zubia igaro ondoren, zubiaren eta ikastetxerako sarbide nagusiaren artean. Aldundiak muzin egin dio zebra-bide hori ipintzeari. Logikaren ikuspegitik badirudi hor behar zuela. Haiek segurtasun-neurriak aipatu dituzte, eta egia da oraindik ez dizkigutela neurri horiek idatziz helarazi, izan ere, haien ustez ez da gomendagarria hor zebra-bide bat ipintzea, eta bai eskatu dugu eta bertan irtenbide bat behar dela uste genuen, zebra-bide bat behintzat.

Arkaitz San Jose Martinez: ez naiz ari soilik zebra-bideez hitz egiten, eta horien beharra ere adierazi genuen, izan ere, proiektu osoan soilik bi zebra-bide zeudela esan genuen kontuan hartuta eskola-zonaldeak gertu zegoela eta ez zitzaigun aski iruditzen. Orain espaloien trazaduraz ari naiz. Jakina, espaloien trazadura bidegurutzetan ibilgailuen joana errazteko dago pentsatua, biribilduak dira, eta inork ez du planteatzen bertatik igarotzea. Horrenbestez, zebra-bideak logiko eta naturala izango litzatekeen gunetik aski urruntzen amaitzen duzu, eta berriro diot errepide nagusian logikoa izan daiteke, baina ez dut ulertzen dentsitate urrikoa den eta eskola-zonaldea den hirigune batean.

Alkatea: kontua da hori zeharbide bat dela. Aldundiaren errepide bat da.

Joseba Vivanco Retes: nik puntu hau baliatuz, urrian egin nuen galdera luzatuko dut berriro. Orduko hartan Alkatetzak esan zigunez, esan ziotenaren arabera, urrian edo azaroan Gordexolako irtengune ditxosozkoen txostena izango genuen. Urtarrilean gaude eta oraindik ez dugu ezer, ustez prest eduki behar zutenetik sei edo zazpi hilabete igaro ondoren, zer gertatuko da irtengune horiekin. Horrenbestez, ez dakit udal Gobernuak badakien txosten hori azkenik noiz izango dugun, edo zain egon behar dugun, gure ustez, adarra nola jotzen diguten ikusten.

Alkatea: bada, Arabako Foru Aldundiak bilkura baterako deialdia luzatu dit hile honetako 16. egunerako, astelehen honetarako.

Joseba Vivanco Retes: Gai hori jorrazteko?

Alkatea: ez dakit bertan zerbait eduki ahal izango dugun ala ez.

Joseba Vivanco Retes: espero dezagun zerbait izatea. Okerrena da gauzak atzeratzen direnean ez dela onerako izaten.

Alkatea: espero dezagun Bizkaiko Foru Aldundiak egin izana...

Joseba Elejalde Ribacoba: hiru Aldundiak eta Eudel erakundea ustez jadanik harremanetan jarri ziren bilkura bat izan eta irtengune bat, bi edo guztiak kentzeko premia balioesteko, edo Euskadi osorako ekimen bat abiarazteko, izan ere, ezin dena da hemen probintzia bakoitzak berea egitea, gustatzen zaigunaren edo gustatzen ez zaigunaren arabera, edo Alkate modura jardutearen edo dagokion Diputatuaren laguna izatearen ondorioz besterik gabe errepide bat laga diezagula. Uste dut, egiaz, horixe dela borrokatu behar dena, hots, probintzia guztietan, Foru Aldundien bidez, zentzu bera eta diziplina bera erabiltzea errepide bat erabiltzerakoan, edo errepide bat kale modura herri jakin bati lagatzean. Arabako Foru Aldundiko Ahalduarekin egon nintzen azken aldiz bilkura hori dagoeneko aurreikusita zegoela esan zidan. Dena atzeratzen da.

Alkatea: horretan zuzendu egin behar dizut. Eudel erakundea ez da zehazki parte hartzen ari Gordexolako sakangunearen gaia jorrazteko. Mahai orokor bat dago irtenguneek garraio publikoan eta osasun arloko larrialdien garraioan duten eragina aztertzeke. Izan ditzaketen ondorioak aztertzeke, eta ildo horretatik instituzio arteko mahai batean ari dira lanean. Argi dago, instituzio arteko mahai horren emaitzak eragin handia duela Gordexolako kasu zehatzean. Baina beste kontu bat da Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoa, Gordexolako sakanguneen inguruko azterketa egitekoa eta orain dauden irtengunean kendu edo murrizteko dauden balizko alternatiba edo konponbideak ikustekoa.

Joseba Vivanco Retes: nik Udaletik bertaratuko zaren bilkura horretara itxarongo dut, eta Arabako Ahalduen Nagusiarri duela gutxi museoan erakusleihen sari-banaketan entzun nizkion hitzak ekarriko ditut hona. Hasi zen esaten Gasteizen, Aldundian, badakitela eta jabetzen direla



Aiarako eskualdea Gasteiztik urrun sentitzen direla. Horrenbestez, hona etortzen ari dela esan zuen, sarritan ikusi dugu dagoeneko, eta ez da soilik Artziniegara bertaraten, Aiarako eskualde osora baizik, gertutasun hori erakutsi eta Gasteizen ere Aiarako eskualdeko interesak defenda daitezten. Ni zain egongo naiz, ez dakit nola aterako den txostena, beldur naiz. Baina Arabako Foru Aldundiak gai honetan berari dagokiona egitea espero dut eta arabarren interesak defenda ditzala, eta argi utz dezala zein den Udalaren iritzia eta amaierara arte defenda dezala. Ez diezagutela txosten itxi bat aurkeztu, non Bizkaiak, ikus dezagun zer esaten duen, baina tira, pentsa dezakegu, eta gero hemen gu Artziniegan geunden bezalaxe geratuko gara hemen gaia borrokatzen aritu ondoren. Nik Bizkaiko Foru Aldundiak gai honetan dagokiona egitea espero dut, izan ere, gutxienez Artziniegako herritarrentzat garrantzitsua baita.

Alkatea: nik puntu honetan esan ahal dizudan bakarra da Arabako Foru Aldundia, errepide eta garraio saila eta Josu Lopez Ubierna Diputatua Artziniega defendatzen ari direla, eta arazoa konpontzeko lanean ari direla.

- Arkaitz San Jose Martinez: beste kontu bat Udal Aurrekontuari buruz, osoko bilkura honetan eztabaidagai ez dena, baina Udalaren aldetik, gobernuko taldearen aldetik, ekimen bat abiarazi da ekarpenak jasotzeko, eta oker ez banago ez da bakar bat ere jaso, eta nire buruari galdetzen diot ea planteatu den formatu horrekin norbaitek ekarpenen bat egingo zuela pentsatzen ote zen. Izan ere, Udalarekin nolabait harreman jarraitua dugunontzat, eta partidak ezagutu ahal ditugunontzat eta Udal Aurrekontuak nola funtzionatzen duen jakin dezakegunontzat, partidak banakatzea eta gutxi gorabehera zer sartzen den, zein gastu ezin diren ukitu eta egiaz inbertsioak zertan diren, zer egin daitekeen eta abar jakitea konplexua bada, Administrazioaz aparteko jendearentzat are gehiago. Horrenbestez, egiten ari garen proposamena "beno, proiekturen bat badaukazu, aurkez ezazu" erakoa da, ez dakit ekarpenen bat jasotzeko egiazko asmo edo itxaropenik zegoen. Badirudi "horrela ezin dute esan egin ez dugunik" esan ahal izateko hartutako ekimen bat dela gehiago, baina uste dut..., edo bestela inozoegiak zarete, ez dakit pentsatzen zenuten formatu horretan norbaitek ekarpenen bat aurkeztuko zuela.

Alkatea: beno, proposamena nahiko orokorra zen. Ideiaren bat badaukazu, helarazi. Ez dakit, agian formatua ez da egokiena. Nik partaidetza-prozesuren batean ikusi dut posta-banaketa egiten, postontziak edo kutxak jartzen dira eta herritarrek bertan egin ditzakete ekarpenak, eta gehiago jaso ohi dira. Uste dut gaur edo atzo Muskizen partaidetza-prozesu bat abiarazi dutela eta 100 ekarpen jaso dituzte, zonalde honetan paperontzi gehiago ipintzeko, proiektu handiak daude, ez dakit non espaloiak jartzeko edota parke jakin bat berritzeko, eta gero badira txikiagoak ere. Ziurrenera formatu horrekin ez gara jendearengana iritsi, baina uste dut irekiagoa eta orokorragoa dela...

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina aldi berean, abstraktua eta konplexua. Hau da, ez da jakinarazi normalean ekarpenak inbertsioen kapitulura joan behar direla ere, hori baita sartzen ez dena... x urteetan zehar egiten bada, modu didaktikoan eta ahalegina eginez, 11. urtean, agian, postontzi bat jarrita nahikoa izango da, baina ez dakit...

Alkatea: edozein modutan, lehen bilkura bat izan dugu aurrekontua ukituz pixka bat, eta aurrekontuaren zirriborroaren aurkezpen bat ere egingo dugu. Bertan dagoeneko diru-sarrerak aipatzen dira, gastuak aipatzen dira, bat kapitulua aipatzen da, gastu arrunta aipatzen da, gastu gatibua aipatzen da, maniobrarako aukeraz ere bai, jendeak horren berri izan dezan.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, baina gehienez hilabete batean onartzeko helburuarekin, horrenbestez...

Alkatea: jendeak ezagutzeko helburuarekin. Lehenengo proposamen ireki bat egin dugu, eta orain 2017. urtean gaudenez, urtearen barnean, bada, erritmo baten barruan.

- Joseba Vivanco Retes: nik banuen hemen beste kontu bat. Lehen aipatu dut espaloien kontua eta beste gauza bat aipatzea ahaztu zait. Gustatuko litzaidake jakitea ea udal Gobernuak ezagutzen duen lanen amaierako iraungitze-data edo amaituta dauden, edo noizko amaituko diren, izan ere, teoriarik abuzturako lanak amaituta behar zuten, Aldundiak bi hilabetez luzatzea onartu zuen, teoriarik urrian amaitzen zen epea. Dagoeneko 2017an gaude, urtarrilean,



dagoeneko badira bi edo hiru aste hortik inor agertzen ez dela, ez dakit Aldunditik Udalarri zerbait esan zion edo Udalak Aldundiari galdetu dion noiz aurreikusten den lanak amaitzea, hau da, guztia amaituta uztea.

Alkatea: bistan da oraindik ez dela amaitu. Aste horietan ez dira lanean aritu, izan ere, uste dut eraikuntzaren hitzarmenean zehazten dela Gabonetako epe hori oporraldia dela. Horregatik ez da bertan langilerik izan.

Joseba Vivanco Retes: horren harira, era berean, deigarria egin zitzaigun, eta ziurrenera Joseba ere oroituko da, Ramiro Ahaldun Nagusia etorri zen egunekoa, hona museora joan den hilean. Bere diskurtsoan esan zuen Artziniegara maiz etortzen dela eta ez dakit ez ote zuen esan dagoeneko etorri zela errepidearen inauguraziora. Nik uste dut biok parean eserita geundela entzun genuela eta esan genuen "bada, ez gara enteratu". Deigarria egin zitzaigun, eta lana amaitutzat ematearena atzeratzen ari dela ikusten dugunez, ez dakigu azkenean...

Inmaculada Vivanco Retes: ni ere bertan nintzen, baina uste dut lanak bisitatzera etorri zela esan zuela.

Joseba Vivanco Retes: ez, ez, inaugurazioa aipatu zuen.

Inmaculada Vivanco Retes: bada lo geratuko nintzen...

Joseba Elejalde Ribacoba: nik uste nuen zubian izan zela.

Joseba Vivanco Retes: ondoren Josebak eta biok horretaz hitz egin genuen.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada zubia inauguratzea izango da.

Alkatea: batez ere zubiko lana nola amaitu zen ikustera etorri zen, kasu horretan izandako arazo eta egindako eginahalen ondoren. Nola geratu zen ikustera etorri zen.

Joseba Vivanco Retes: eta zer gutxiago zinta moztea baino.

Inmaculada Vivanco Retes: hori da, ez dagoela inauguraziorik ez diotelako zinta eman.

Joseba Vivanco Retes: hau da, hasiera batean, lanak hor dirau. Pentsatzen dut erremateak faltako direla, gauzak amaitzeko eta, ondoren, gure taldetik bederen, Aldundiak abiadura apur bat hartzea espero dugu, eta zuk lehen aipatu duzu ez zizuetela idatziz erantzun zebra-bidearen gaiari buruz, baina ezezkoa helarazi zizuetela, guri gustatuko litzaiguke jakitea gabezien inguruan, baten bat larria ikusi dugu gainera, Udalean aurkeztu ditugun gauzei buruzko idatziak Aldundira igorri diren, lehenbailehen erantzun dadila, izan ere, gu oposizioan gaude, baina nik uste dut udal Gobernuak ere presioa egin beharko lukeela hainbat kontutan. Ez dakit egin den, baina presioa egin beharko litzateke. Gerta daiteke lan hori amaitzea, amaitutzat ematea, eta gurgildun aulkian dagoen pertsona batek txoriren parean dagoen solairu-blokerak joateko dauden bi espaloietako bakar batetik ere ezin jaitea. Tamalgarria izango litzateke gastatutakoa gastatuta eta orain arte egin dena kontuan hartuta, zenbaiten esanetan. Hau da, gurgildun aulkian dagoen pertsona batek hemendik hara jaitsi nahi izatea eta bi espaloietako bakar batetik ere ezin izatea. Horrenbestez, uste dut, lan hori onartu duzuen udal Gobernu modura, zenbait gauzei abiadura eman behar zaiela amaituta dagoen egunean inor gorritu ez dadin. Bildu alderditik aurkeztu ditugun kontuak lehenbailehen erantzun daitezela espero dugu.

Alkatea: nik uste dut Aldundiak erantzungo duela.

Joseba Vivanco Retes: izan ere, jabedunei erantzuten ari zaizkiela ikusten dugu. Baina momentuz, Bildu alderdiak aurkeztutako kontuei ez zaie erantzun.

- Joseba Vivanco Retes: bazen beste kontu bat. Joan den hilean idatziren bat aurkeztu genuen Udalean. Horietako batek Herriko Ateko orubearekin zuen zerikusia, zeina, oker ez banago, jabeduna zen finantza-erakundearen jabetzakoa izango den oraindik.

Alkatea: ez dakit noiz egin diren kudeaketak. Zuk aipatu duzu duela zenbait denbora kudeaketa zenbait egin zirela.

Joseba Vivanco Retes: antzina kudeaketa bat baino gehiago egingo zirela pentsatzen dut, ez dakit. Kontua da datorren artean ziurrenera idatzi bat erregistratuko dugula, Koadrilako ingurumen arloko teknikariak dagokion batzordera etor dadin, espaloietan egindako lanen eraginpean dauden zaborretarako edukiontzi ezberdinak non kokatzea aurreikusten duten argitu eta informatzera, bai ikastetxearen parean daudenak, bertan utzi baitituzte utzita, behin-behinekoz, espero dugu, bai hemengo espaloian daudenak, eta baita hasiera batean egoitzaren



aurrean zihozenak eta orain plaza inguruan daudenak ere. Bildu alderditik proposatzen genuen abagunea baliatuz, uste dut ideia ona izango litzatekeela orube horren jabeduna den finantza-erakundearekin berriro hitz egitea lagapen baten aukera edo beste aukeraren bat aztertzeko, eta hura handitu eta aparkamendurako plaza gehiago izateko eta, are, orain arte egoitzaren parean zeuden edukiontzi guzti horiek bertan kokatzeko, zeintzuk espero dugu eta iguriki dugu ez direla berriro egoitzaren parean utziko egin diren espaloi berrietan.

Alkatea: beno, Aintzane egon daiteke lasai asko hurrengo batzordean, baina alde aurretik esaten dizut egon garela dagoeneko ikastetxeko zuzendaritzako kideekin edukiontziak berriro kokatzeko, hala organikoa nola paperarena. Beste kokapen bat emateko, han egon ez daitezten. Egoitzari dagokionez, egoitzaren jabeekin ere hitz egin zen, eta baita Aldundiarekin ere, kokapenak aldatu eta edukiontziak dauden lekuan egon ez daitezten, jakina, eta egoitza barruan sar daitezten. Eta horiei dagokionez, kontua ez da berriro hitz egiten hastea, kontua da aurreko legealdian egin zirela Vital erakundearekin hitz egiteko saiakerak, eta sukurtsaleko Zuzendariarekin hitz egiten aritu naizenean, eta Vital erakundeko zonaldeko ordezkaria etorri denean, aipatu diet haientzat deus suposatzen ez duen lur hori dugula eta guretzat oso interesgarria litzatekeela parking modura erabiltzeko, beraz argi dago kontua ez dela berriro hitz egitea, ez dugu ahaztuta, niri egiaz dena baino azkarrago joatea gustatuko litzaidake, Vital erakundera azkarrago iristea gustatuko litzaidake eta gaia lehenbailehen ebaztea. Baina ez dugu ahaztuta.

Joseba Vivanco Retes: ezetz espero dut, kontua ez da ez dugula ahaztuta, baizik eta ez dakidala aurreko legealdian elkarrizketak egon ziren ala ez. Bederen, aurreko Alkatetzak ez zion oposizioari informazio modura esan hitz egiten ari zirenik. Beste inoiz hitz egin dela, ziurrenera bai. Aurreko legealdian ez dakit, ez zitzaigun horren berri eman behintzat. Nik uste dut hori hor izanda eta dauzkagun arazoak kontuan izanda, eta batez ere, ahal den neurrian, herrigune sarreran dauden edukiontziak kentzea, egokiena beste nonbait kokatzea izango litzateke, hondorago ziurrenera, espazio hori baliatuz. Ez dadila kontua izoztuta geratu, mahai gainean egon dadila eta berraktiba dadila. Berriro diot, aurreko legealdian, lau urtekoa, ez dakit aurreko gobernuko taldeak kudeaketarik egin zuen ala ez. Ez dakit, ez zitzaigulako ezer esan. Horrenbestez, orain egoera hau egokitu zaigunez, uste dut aukera ona izango litzatekeela berriro tematzeko, sekula ez baita alferrikakoa izaten hori. Eta, bide batez, galdetu ea baduten ideiarekin bat hemengo bulegoarekin, izan ere, beste udalerrietan asko ixten ari dira. Hemengoa arriskuan dagoen ala ez galdetzea. Aldez aurretik esan diezagutela bederen. Ez litzateke soberan egongo.

• Joseba Elejalde Ribacoba: egin dezaket mintzaldia. Joan beharra baitaukat. Besterik gabe Alkateari kontu bat galdetzeko, 2016ko abuztuaren 9an Alderdi Popularrak idatzi bat sartu zuen 2. Industrialdeko 362 zenbakidun partzelari buruz, Mendietara igotzen den errepedeko ur guztien eragina jasotzen duena. 2016ko irailaren 26ko data duen txosten tekniko bat dago. Bertan irakur daitekeenez "idatzi honetan adierazten den moduan, bideak ez du arekarik ezkerrean, Mendietarako noranzkoan. Era berean, bihurtuaren zonaldean bidetik datozen urak, bere inklinazioa dela medio, ezkerredera doazela ikus daiteke, eta alde horretan ez dago kanalizaziorik, 2-362 partzelan gainezka eginez. Partzelako ezpondan aipatutako kalteei dagokionez, kanpoaldetik ez dira ikusi partzelan euri-ura isuri izanagatik kalterik. Adierazi, era berean, jabedunek egindako ezpondak gehiegizko inklinazioz eginda daudela eta, horrenbestez, ziurrenera kalteak izango direla eragin klimatologikoen ondorioz, aipatutako uren isuria kontuan hartu gabe ere. Eskuinaldeko arekari dagokionez, bertan garbiketa- eta mantenu-lanak behar direla ikusi ahal izan da. Ondorioak: aurrekoa ikusirik, bidetik 2. industrialdeko 362 zenbakidun partzelara isurtzen diren euri-uren arazoa konpontzeko, ezinbestekoa izango da bidearen bihurtuaren zonaldean ezkerreko areka eskuinaldekoarekin konektatzea nahikoa diametro izango duen tutu batekin, modu horretan urak desbideratu eta partzela horretara isurtzea ekidinez. Halaber, arekak garbitu egin beharko dira, horien funtzioa eraginkortasun handiagoz bete dadin". Beno, ni gaur igaro naiz bertatik, Mendietara arte joan naiz, eta arekak abuztuaren 9an bezain zikin daude oraindik. Jakina, kanalizazioa oraindik ez dago konektatuta eta, besterik gabe, galdetu nahi nuen noiz egingo ote





den lan hori, partzela horretako auzotarrak kalterik jasan ez dezan, edo erantzukizuna Udalarena dela pentsatuz kalteak erreklama ez ditzan.

Alkatea: bada, ezin dizut eperik eman.

Joseba Elejalde Ribacoba: bada, denbora nahikoa pasa dela uste dut. Abuztuaren 9tik ari gara urarekin lotutako arazoaz hitz egiten, urtarrilean gaude, zorionez udazken atsegina izan dugu, baina badirudi negua gogorra datorrela, eta azkenean arazo bat izango dugu auzotar horrekin duela zenbait hilabete, txostena egin zenetik, irailetik hona, arazoa konponduta egon zitekeenean. Gainera, uste dut, oker ez banago, ezkerraldearen eta eskuinaldearen arteko lotune edo kanalizazioari buruzko aurrekontu bat ere badagoela, nik uste dut arazo hori dagoeneko konponduta egon zitekeela eta jabeak etorkizunean jar ditzakeen balizko demandak ekidin zitezkeela.

Joseba Elejalde Ribacobak osoko bilkura utzi du 21:10etan.

• Joseba Vivanco Retes: nik banituen pare bat kontu. Bat galdera bat da, oker ez banago, urriko osoko bilkuran ere luzatu nuena, kontua da 2016. urtean zehar, hasiera batean, aurreikuspena genuela, itxaropena genuela, batez ere udari begira, xendren gaia jorra zedin. 2015eko urrian Ganzorrotzek Udalera igorritako proposamenari dagokionez, hartan hainbat xendra gaitu eta haiek seinaleztatzeko, 2016. urtea igaro da osorik, eta oker ez banago, galdera egin nuenean Alkatetzatik esan zen Osakidetza diru-laguntza batzuen zain zeudela bihotzarentzat osasuntsuak ziren ibilbide batzuetarako, baina urtea amaitu da eta nik ez dakit, agian diru-laguntzen emakida iritsi, ez dakit, nik behintzat ez ditut ikusi edo agian pasatu egin zait. Xendren kontu horrekin noiz esku hartuko dugun jakiteko da.

Alkatea: ez, ez zen diru-laguntzaren emakida iritsi.

Joseba Vivanco Retes: Emakida ez?

Alkatea: doitu eta genuen berezko partidarekin zerbait egingo dugu, dagoeneko enkargatuta dago Lastratik doan bidearen seinaleztapena, Sojogutitik doana, bide horren seinaleztapena enkargatuta dago.

Joseba Vivanco Retes: beraz, aurreikusita zeuden bietatik bat egingo da.

Alkatea: bai, bat zen edo bi, ez dut gogoan. Ez dut gogoan horretarako soilik iristen zitzagun edo Otsatiko biderako ere iristen zitzagun.

Joseba Vivanco Retes: azken batean, 2016. urtean zehar egin zitezkeela aurreikusi genuen eta ikusi dugu ez dugula seinaleztapenik, eta Artziniegarako ere erakarpen modura aurreikusita genuen xendren ibilbidea ere ez dela egin. Halaber, Dorrearen hotelaren gaiarekin itxita dagoela aurkitu dugu, Arteko tabernaren gaia ere itxita izan dugu, bidearen gaia jorratu gabe, eta azkenik urte osoa igaro da eta ez gara elkartu, uste dut urtearen hasieran elkartu ginela, ez naiz oroitzen zein hiletan, turismoaren gaiarekin eratutako foroan, eta 2016. urte osoa igaro da turismorako garrantzitsuak ziren beste kontu batzuekin, esate baterako, Dorreko hotelaren itxiera, eta foroa ez horretarako ere elkartu. Azken buruan, 2016. urte osoa igaro da Artziniegako turismoaren gaiari dagokionez neurri bakar bat ere hartu gabe ia, eta nik uste dut kontu garrantzitsua dela hori. Bildutik sarritan errepikatu dugu eta azkenean urtea joan zaigu.

Alkatea: tira, egia da foroa behin bakarrik elkartu dela, baina bada gauza bat, eta gaur puntu modura izan dugu, Aramendiako emakidaren erreskatearena, hain zuzen. Nik uste dut hori dela puntu gakoa, eta espero dugu lizitaziorako plegua ateratzen dugunean jendea aurkeztuko dela, eta berriro abian jarri ahal izango dela. Espero dezagun. Eta horretan ari gara lanean. Badakizue pleguaren zirriborro bat dugula, eta aztertzen ari gara. Lehendabizi erreskatatu eta aurreko emakidaduna eten edo ukatu zen. Zuzendu beharreko lehen egoera zen hori. Gerora izan dugu hotela hartzeko nolabaiteko interesa erakutsi duen jendea. Interesa izan dezakeen jendearekin kontsultatu behar da edo gai horretan, ostalaritzan, ezagutza izan dezakeen jendearekin, guk ere ez baitugu aparteko ezagutzarik nola egin, nola bideratu jakiteko. Eta beno, ildo horretatik, laster plegua atera ahal izatea espero dut. Uste dut oso garrantzitsua izango dela udalerrirako. Eta egia da orain arte burutu dugun lana ez dela primerako lana izan, ukapen-lana baita, berrikuspen-lana, emakida erreskatatzeko lana, abala gauzatzekoa,



ordaintzeke dauden ordainketak eskatzekoa, ordainketak egitekoa, negoziatzekoa, erreskatatzekoa, pleguak eratu eta atera ahal izatekoa. Baina, tira, hor gaude.

Joseba Vivanco Retes: bai, baina berriro diot, azken batean 2016. urtea joan da Artziniegako turismoaren politikaren gaian ia neurririk hartu gabe. 2016. urtea igaro da eta oinarriak ere ez ditugu jarri. Eta nik datu bat eman nahiko nuke, batez ere, errealtatea ikus dezagun. Entzuten ari gara 2016. urtea errekorreko urtea izan dela, ez dakit errekor-urtea edo bigarren errekor-urtea, bisita turistikoari dagokienez, Euskadin bederen, zeuden datuen arabera. Errekorreko uda. Gu Museo Etnografikoari azken lau urteetako bisiten datuak eskatzeaz kezkatu gara, izan ere, horiek baitira, hasiera batean, gu nola gabiltzan ikusteko gehien hurbil daitezkeen datuak. Datu finkoak dira, frogagarriak. Beno, bada Museora egindako bisitetan soilik erreparatzen badugu, jarduerak aparte, erakusketa aparte, 2016ko ekaina eta iraila bitartean museora egindako bisitak kontuan hartuz, horiek baitira hilabete gakoak, guztira 2.261 bisita izan dira. Azken lau urteetako kopuru apalena da. 2013an 3.100 izan ziren, 2014an 2.600, 2015ean 2.800 eta 2016an 2.000. Hots, datu hotza da, besterik gabe, baina hor dago. Eta nik uste dut Udal modura gogoeta egin beharko genukeela. Egiten ari garenaz, egiten ari ez garenaz, Artziniegako turismoko politikaren gaiarekin, Artziniegako turismo-plangintzaren gaiarekin. Egiten ari ez garenari heldu eta gai hori jorra dezagun, baina plangintza batekin, ez itsu-itsuan.

Alkatea: beno, ikusiko ditugu datuak abenduan, ea zer dioten.

Joseba Vivanco Retes: ez, udan hitz egingo dugu. Turismoari dagokionez errekor-urtea Euskadin eta, Artziniegan, ziurrenera, kopuruak adierazten duenez, jaitsi egin gara beste urte batzuekin alderatuta. Arrazoiak izango dira, baina jaitsi egin gara. Ziurrenera ez da izango Udala etxerako lanak egiten ari delako.

Alkatea: ikusiko dugu abenduan datuek zer dioten.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren iluntzeko bederatziak eta laurdenetan (21:15). Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.